


Argibideak: MIKELA ELICEGUI  
Bilduma: ANTONIO ZAVALA, S.L.

# PELLO ERROTAK

**JARRITAKO BERTSOAK**  
BERE ALABAREN ARGIBIDEAKIN



**AUSPOA LIBURUTEGIA**

PELLO ERROTAK  
JARRITAKO BERTSOAK  
bere alabaren argibideakin

AUSPOA LIBURUTEGIA

33

---

### **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2-Tolesa**  
**Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**  
**Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián**  
**(Guipúzcoa - España)**

Ordaindu bearra:

Urte betekoa: 200 pezeta      Atzerrian: 275 pezeta

Ongilleak: 350      "      Ale bakarra: 25      "

Argibideak: MIKELA ELICEGUI  
Bilduma ANTONIO ZAVALA, S. I.

# PELLO ERROTAK

JARRITAKO BERTSOAK

bere alabaren argibideakin

AUSPOA LIBURUTEGIA

1963

*Depós. Legal S. S. 245/64*  
*Número Registro 6080/63*

## A R K I B I D E A

*Itzaurrea* ... .. 9

### ASTEASU-KO MIXIOA

Asteasuko Mixioa (1879) ... .. 15

“Bertso berriak Asteasu-ko Elicegui-k jarriak” 19

### APUSTUAK:

I.—Amasa-ko sega-apustua ... .. 35

Bertsoak ... .. 36

II.—Andoain-go asto-apustua (1892) ... .. 39

“Bertso Berriak ... .. 40

Iturrioz-ko sega-apustua ... .. 48

### EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK:

I.—“Bertso berriak” ... .. 53

II.—(Gertaera) ... .. 62

“Bertso Berriak” ... .. 64

III.—(Gertaera) ... .. 72

Bertsoak ... .. 74

IV.—(Gertaera) ... .. 79

Bertsoak ... .. 82

V.—(Gertaera) ... .. 85

Bertsoak ... .. 86

VI.—(Gertaera) ... .. 90

Bertsoak ... .. 91

## ARANTZAZU-RA

Arantzazuko Pelegrinazioak ... ..	95
Arantzazuko bertso-paperak ... ..	101
I.—“Bertso Berriak” ... ..	104
II.—“Bertso Berriak” ... ..	109
III.—“Bertso Berriyak Arantzazuko alegrantzian jarriyak” ... ..	118

## GAÑERONTZIKO BERTSO-PAPERAK

I.—Gernikako Arbolari ... ..	129
II.—Senar emazte bi (Gertaera) ... ..	132
“Bertso Berriak neronek nere gertaerari jarriak”	134
III.—Bi Indiano (Gertaera) ... ..	144
Bertsoak ... ..	147



*Erretratu au «Euskal-Erria» errebistatik (69, 546 orri-alde, 1913) artua degu.*

*Erretratuaren azpian onela dio: «Bersolaris: Zapirain, Pello-Errota, Otaño».*

*Bañan ez du esaten zein Otaño dan: Jose Bernardo ala Pedrø Mari. Seguru asko, Pedro Mari izango da.*



## ITZAURREA

*Liburu onek, bere izenak dion bezela, Pello Errotak jarritako bertsoak ditu.*

*Bere egillearen izena lau paperek bakarrik ematen digute:*

*Mixioaren kanta-paperak ala dio: "Bertso Berriak Asteasu-ko Elicegui-k jarriak".*

*Arantzazu-ko lenengo kanta-paperak:*

*"Asteasun bizi izan zan  
Pello Errotariak".*

*Bigarrengoak:*

*"Elicegui-k nai luke  
guztiyok juatia".*

*Irugarrengoak:*

*"kontentuz arkitzen da  
Pello errotakua".*

*Gañerakoak ez dute Pelloren izenik ematen, eta ez genduan arenak ziranik sekulan jakin izango, aren alaba Mikela bizi izan ez balitz.*

*Bertso-paperez betetako nere karpetak*

*etxera eramaten nizkan. An bertso-paper ba-  
koitzetik iru-lau bertso irakurtzen nizkan.  
Geyenetan ola zion: "Ez, ori ez". Bañan noi-  
zean bein ola esaten zuan: "Bai, ori bai;  
ori nik eskribitua da".*

*Ta buruz beste zenbait bertso esaten zi-  
tuan, nik bertso ayek berak paperetik nere  
artean irakurtzen nituan bitartean.*

*Mikelak bere aitaren sekretariotza egiten  
zuan. Berak eskribitzen zizkan bertsoak. Ta  
arrezkeroztik larogei urte pasa diralarik  
ere, oraindik bertsoak buruan gordetzea,  
arritzeko gauza da benetan: bañan ortik  
pentsa dezakegu gure erriaren oroimena no-  
rañokoa dan.*

*Olakoai, paper-buruan, oi dan bezela,  
Bertso Berriak zegoan ezkerre, orixe bera  
jarri diegu guk ere; ta besterik gabe ere,  
irakurleak ortik antzeman dezake zein di-  
ran Mikelak bere aitarenak hezela ezagutu-  
tako paperak.*

*Olakoen gertaera, Mikelak kontatu beze-  
laxe jarri degu, itzez-itzez magnetofonoz jaso-  
ta. Argibide oyekin, bestela guretzat illun  
xamarrak ziran bertsoak, argiz beterik gel-  
ditzen zaizkigu.*

*Bañan badira beste zenbait bertso, ez ger-  
taera ta ez kanta-papera ezagutzen ez geni-*

enak. Oyetan Mikelari zor diogu dan-dana. Etzan bertso guzietaz oroitzen, ezta batzuetan bertso osoaz ere. Bertsoa erdizka gogoratzen zitzayonean, lerroa puntuz markatuta jarri degu.

Bañan lerroa puntuz eta gero oar batekin dagoanean, oarrak dion bezela, kristau edo erri-izen bat kendu degula esan nai du. Or aitatzen diranen ondorengoak gure artean izango dira oraindik noski, ta ez goaz iñoren lengo lotsak eta samintasunak berri-tzera.

Beste batzutan, nik bertsoak irakurtzean, Mikelak onela zion: "Oyek ere badute ba gure aitaren bertsoen itxura!". Bañan dudan baitzegoan, ez ditugu liburu ontan jarri.

Gañera, Mikelak etzuan beti aitaren sekretariotza egin. Aizpak ere egin izan zuten bein baño geyagotan. Orduan jarriak ezin, ba, ezagutu.

Beraz, gaur emen argitaratzen diranaz gain, beste bertso askorik ere jarri zuan Pellok; bañan, zoritxarrez, oyek ez ditugu sekulan Pellorenak bezela ezagutuko.

Etengabe etortzen omen zitzayon jendea. bertsoak jartzeko eskean. Baita Pellok ere

*pozik asko jarri, jornala irabazteagatik. Bost duro kobratzen omen zien bakoitzeko.*

*“Pello Errotaren bizitza” deritzayon liburuan ere, badaude Pellok botatako ez-eze, jarritako ere zenbait bertso. Bai, bañan ayek iñork eskatu gabe jarriak zituan, bere barrenak eskatzen ziolako jarriak dira.*

*Eta alako bertsoak —Mikelak gogoan jasooak gañera, ez guk paperetun arkituak— Pelloren bizitza bera argitzen dute. Egokia-go ematen dute beraz liburu artan, oraingo beste ontan emango zuteken baño.*

Antonio Zavala S.I.

**ASTEASU'KO MIXIOA**

## ASTEASUKO MIXIOA

(1879)

Nik amairu urte nituan. Nere gazte-denboran Amasa-n, Zizurkill-en eta Asteasu-n ezagutu nituan mixioak. Zizurkil-koa izan zan aurrena.

Angoa ikusi eta "Asteasura ekarritzeko egin zan ametsa", ta ala, erri guziak dirua emanda ekarri ziran mixiolariak.

Mayatza zan, baserritarrentzat garairik okerrena, bañan ala ere, bederatziurren artan erri guzian ganadu bat ere etzan lotzen lanerako. Gurdi-txistu bat mendian entzuten bazan, "zein ote da ori?" galdetzen zuten danak arrituta.

Begira jarrita, bazter guzietatik bazetorren jendea bideak betean. Baita Alkiza-tik, Zizurkil-dik, Aduna-tik ta besteetatik ere. Orduan ala izaten zan: erri hatean mixioak baziran, inguruko errietatik ere agure-atsoak ez beste danak etorri. Astiasutik ere ala joan giñan Zizurkilla ta Amasara.

Bazan orduan errian Ameriketarik etorri-tako erriko seme bat, Xanti, ta onela esan zion onek gure aitari:

—Pello, nik esango banu Ameriketara nere errian aste-egunean nola dijoan mixiora jendea, ez lidake inork sinistuko ta erotzat joko ninduten.

Orduan bakarrik ezagutu nuan tabernara txiki-erdi bat ardo edatera animik ere joan etzan eguna. Orain fedea otza dago orduko aldean.

Zizurkil-koan, zimitorioan egin zituen sermoi batzuk, jende dana elizan ezin sartu zalako.

Astiasura bi praille etorri ziran: Frai Luis ta Frai Daniel. Frai Luis begi bakarra zan, ta bestea berriz oso gaztea. Gure aitak ere esaten du:

“Oi ta bost urte oraindik eta predikadore zuzena”.

Erretore-etxeko atarian biltzen zan jendea, ta andik elizara prozesiyoan joaten gitan “Atoz pekataria” kantatzen. Aiton kaskazuri danak ere kantari joaten ziran.

Izlari bikañak ziran praile ayek biak. Frai Luisek predikatzen zuan aurrena, ta gero Frai Danielek.

Beste bertsolari batena nik Amasako mi-  
xioan aditu nuan. Barkazioko sermoya zan.  
Ola esan zigun prailleak:

—Nere kristauak: Bertsolari zar batek  
bein esan zuana esango dizuet orain nik ere:

Lenengoa fedea,  
bigarrena esperantza,  
irugarrengo orrek badu  
milla bat mudantza,  
iil da karidatea!  
ibizi da mengantza! (1)

Ta iru bider esan zuan:

iil da karidatea!  
ibizi da mengantza!

Bukaeran ere, Astiasun, erretore-etxeko  
atariraño laguntzen genien praileai. An da-  
nak belauniko jarri ta gurutze batekin Aita  
Eternoaren bedeinkazioa ematen ziguten. Ta  
gero ixil-ixilik joaten giñan danak norbere  
etxera. Orduan kristau beroak edo otzak  
izaten ziran; etzegoen epelik, gaurko geye-  
nak bezela.

Zimitorioa erresario, medalla, ta eliz-li-  
buru saltzallez betea egoten zan. Gero ga-  
lerazi zuten ori.

Gure aitak, etxera joan ta egun artan

---

(1) Au, Aya-ko Izuela-ko Artzayarena da.



egindako sermoyaren gañean bertso-pare bat apuntatzen zuan.

Gero, kanta-papera publikatzerakoan, erriko bi gizonek esan zioten mixioa aiek ekarria zala jartzeko, bañan gure aitak ezetz esan zien, erri guziak ekarria zala ta etzala bate gezur-bearrikan (2).

---

(2) Mikelak bertso batzuek kantatu zizkidan, bañan guziak ez ditut Tolosako Fakundo Adurriaga "Besamotza" zanaren bertso-bilduman beste iñun arikitu. Emen dauden bezela jartzen ditut.

**BERTSO BERRIAK**  
**ASTEASU-KO ELICEGUI-K JARRIAK**

1/ Milla zortzireun irurogei ta  
emetzigarren urtea,  
Asteasura logratu dute  
misiyuak ekartzea,  
ondorenean gogoratu zat  
ejenplo on bat jartea,  
onetarako zure bear naiz,  
guziyon Jesus maitea.

2/ Mayatzaren ogei ta batean  
asi zaizku misiyuak,  
jakin ditugu nola diraden  
guretzat kondiziyuak,  
gure onerako izandu dira  
orien esplikaziyuak,  
indartsu, arren, egin nazala  
Jesusen bendiziyuak.

- 3/ Au Zizurkillen ikusi eta  
egin genduen ametsa,  
Asteasura ekarritzeko  
iñola're al bagentza,  
erri guzia orretarako  
egiña dago nobleza,  
komisioa nonbratu eta  
kunplitu degu promesa.
- 4/ Frai Luis orrek predikatu du  
kulpitotikan aurrena,  
itzegin digu erakustera  
etorri dala gugana,  
ezagaturik gure artian  
premi aundiya zeguana,  
orren sermoyak mugituko du  
sentidurikan duena.
- 5/ Frai Danielek itz egin digu  
berriz urrengo puntuan,  
ez segitzeko komertzioan  
guk mundurako tratuan,  
anima garbi idukitzeko  
zuzenian da kontuan,  
onetarako konbeni dana  
Jaunaren beldur santuan.

6/ Relijioso bi izan dira  
seme San Franziskorenak,  
guk kunplitzeko baldin bagindu  
eman dizkue ordenak,  
gure onerako izandu dira  
oyek egindako lanak,  
Jauna alabatzen ekusitzia  
zeruan nai dute danak (3).

7/ Egoki asko atera zuten  
guretzat on zan planua,  
etzala hasta pensatutzia  
"konfesatzera banua",  
bear bezela pensatutzeko  
utsegiñaren damua,  
dolorea ta propositua  
ori da bide sanua.

8/ Ikasirikan arkitzen gera  
nola egin konfesioa,  
esamiñara prestatutzeko  
lenengo atentzioa,  
dolorea ta propositua  
ori da kondizioa,  
penitentzia kunplitutzean  
badu satisfazioa.

9/ Asko alditan esan digute  
predikadore maiteak  
bat utzi gabe ateratzeko  
barrengo serpienteak,  
artatik arin jartzen dirala  
animetako nekeak,  
minutu artan eiten dirala  
Jaungoikuakin pakeak.

10/ Pekatariak eginaatik  
pekatu ustez gordean,  
Jaun Zerukua presente dago  
beti begien aurrean,  
deskuidatutzen giñan geyago  
gauza ori jakin gabean,  
ontzaz aurrera izango gera  
gu bizimodu obean.

11/ Obligazio asko diogu  
kristau guziak Jesusi,  
nere mingañoak zenbateraño  
au ezin adierazi,  
arren prueba klaroan dago  
ifnork nai badu ikusi,  
bere odola ixuri eta  
danok ginduzen erosi.

12/ Pekatu egin dan bakoitzian  
Jesus berriro josten da,  
infernu dana zabaldu eta  
zeruko atea ixten da,  
etsayetara aren anima  
entregatua uzten da,  
ez al gerade atrebituko  
kalte oyek ikustean! (4)

13/ Engañagarri bat besterikan  
ez dadukagu mundua,  
tentazioa nunaitik eta  
iñola ezin kendua,  
allegatutzen zaigun garayan  
eriotzako ordua,  
bear bezela pronto ez badago  
aren anima galdu'a (5).

14/ Il bearra guk danok daukagu  
pekatuak ekarriya,  
konsideratzen badegu ondo  
gauza ikaragarriya,  
anparorikan iñundik ez ta  
estadu errukarriya,  
aren anima galdua dago  
pronto ez badago jarriya.

15/ Nere kristauak, badatorkigu  
azken juizioko eguna,  
Josepetako zelai santuan  
danok bildu biaguna,  
juez justuak letuko digu  
munduan egin deguna,  
errukarriya aterako da  
ara gaizki joaten dana.

16/ Juez justuak guzien histan  
letuko du sententziya,  
zer posturetan igaro duhen  
mundu onetan biziya,  
zuzen badago ziertoa da  
zerua irabaziya,  
gaiztoak herriz infernuetan  
eternidade guziya.

17/ Obligaziyo askoren mende  
bizi gera gurasuak,  
prezisamente guk azi biar  
aur inozente gaixuak,  
erakutsiaz nola diraden  
Jesukristoren pausuak,  
gañerontzian guretzat datoz  
kastigu izugarrizkuak (6).

18/ Inozentia utzitzen badu  
gurasoak okerrean,  
etsayak ura tentatuko du  
agudo jeneralean,  
zer eskandalo jarriko ditu  
orrek mundu zabalean,  
ekuskizunak aundiak daude  
Jaungoikuaren aurrean.

19/ Aurrarentzako bear dana da  
batayoa lenbiziya,  
orren urrena tokatzen dira  
mantenua ta jantziya,  
dotrina ondo erakutsiyaz  
Jesusek guri utziya,  
ala portatzen baldin bagera  
libre da kontzientziya.

20/ Seme alabak bizi dirade  
ordena onen mendean,  
aita ta ama errespetatu  
bear dan umildadean,  
al duen gayaz sokorrituaz  
ezintuera diranean,  
berak nai badu ala izatia  
artaratutzen danean.



21/ Premi danean lagundu ondo  
aitari eta amari,  
bestela ofensa egingo zayo  
guziyon jabe Jaunari,  
erreparatu deyola ondo  
atal buruko kanari,  
kastigu aundiyak etortzen zaizka  
gaizki portatzen danari.

22/ Eskandaloso guziak dira  
etsayen ayudanteak,  
engañatuzen ibiltze'iranak  
persona inozenteak,  
zabalik beti utzitzen dizka  
okerrerako ateak,  
desprezio au ez du merezi  
Jesusen borondateak.

23/ Persona eskandaloso batek  
anima asko galtzen du,  
zeru-bidean dagona ere  
infernurako jartzen du,  
bere anima etsayetara  
orduan entregatzen du,  
etzinake zu ola ibilliko  
au pentsatuko bazendu.

24/ Aurretik asko illak dirade  
gu're ez beti biziko,  
zerbait esaten asia nago  
banuke adieraziko,  
mundu ontako iduripenak  
dirade egun gutxiko,  
kuidado anima galdu ez dedin  
eternidade guziko.

25/ Aldrebes asko geunden bada  
gauza oyek ez ikasiyan,  
pekatuetan bizi giñanak  
geren denbora guziyan,  
illuntasuna beste gauzarik  
ez dala kontzientziyan,  
oyen sermoyak para gaituzte  
Jaungoikuaren graziyan.

26/ Gure animak konsolatzera  
oyek zaizkigu etorri,  
nola bear dan garbiro asko  
dizkigute irakorri,  
bengantzarikan baldin badegu  
barkatutzeko alkarri,  
lenago gaizki bizi giñanak  
orra deskansuan jarri.

27/ Barkaziyoko sermoya egiten  
kulpitotikan asi zan,  
Jesusen prueba nolakua zan  
klaro asko ikusi zan,  
bengantzak zeukan ate zabala  
derrepentian itxi zan,  
erri guztia jarri gaituzte  
pake santuko bizitzan.

28/ Persona asko bizi giñaden  
pekatuak erituak,  
obra onetara utzi nai ezik  
etsayak amarratuak,  
traba guziak libratu ditu  
gizon oyen predikuak,  
esan gentzake oyek dirala  
gure animen medikuak.

29/ Bear bezela alabatuko  
banu Arrue Fray Luis,  
sermoi ederrak egin dizkigu  
bere birtute ugariz,  
predikadore izugarriya  
azkarra dago memoriz,  
maiz ekartzia orrelakua  
obe litzake al balitz.

30/ Beste laguna Baertel zuen,  
Fray Daniel izena,  
oi ta bost urte oraindik eta  
predikadore zuzena,  
ederki asko betia dauka  
memoriko almazena,  
estimatua bear litzake  
tamaña ortako gizona.

31/ Mesede asko izan degu guk  
gizon oyek ikusia,  
sendatu eta utzi gaitue  
len gaizki geunden guzia,  
bide luzean zabaldu dedin  
relijioko azia,  
Jaunak diela leku askotan  
predikatzeko grazia.

32/ Ni Asteasun bizi naizena  
nerez naiz errotaria,  
oyek juanda artu dedana  
pena ikaragarria,  
baldin banengo poderatua  
interesez ugaria,  
errian bertan egingo nieke  
oyei konbentu berria.

- 33/ Obra onetan segitutzeko  
eman dizkue puntuak.  
denbora junda ez du balio,  
orain atera kontuak,  
Jesusengana beti gogatu,  
gorrotatu pekatuak,  
animak indar iduki dezan  
maiz artu sakramentuak.
- 34/ Jesus maitia amoriuaz  
daukagu guri begira,  
garbitutzeko otsegiten du  
animan degun zikiña,  
sakramentuak maiz eta ondo  
errezibitzen badira,  
pausorik ere utsegin gabe  
zeruetako glorira.
- 35/ Nere kristauak, segi dezagun  
ori ola dan kasuan,  
pensatuaz zer konsueluak  
diraden Paradisuan,  
Ama Birjiñak artu gaitzala  
danak guziok besuan,  
gero gloria goza dezagun  
eternidade osuan.

36/ Guzion Jesus, guregatian  
egin bear du erregu,  
orretarako beraren Ama  
bitartekotzat biagu,  
orren fabore atera ezkeru  
zerua dago seguru,  
Pedro Elizegi-k au deseo du  
amen komeni bazagu.

---

(3) Fakundo Adurriaga-ren bertso-bilduman beste onela zegoan bertso au: *zeruan nai duten, amen*. Oker, beraz. *Zeruan nai duten danak* jarri degu, Mikelak ala esan zualako.

(4) Puntu au ere oker dago. Nola jarriko zuan Pellok?

(5) galdu'a=galduta da.

(6) Puntu au ezin irakurri zan; *izugarritzkuak* Mikelak osatua da.

IKUSI: Tolosako Fakundo Adurriaga "Besamotza" zanaren eskuz idatzitako bertso-bilduma.

# APUSTUAK

# I

## AMASA-KO SEGA-APUSTUA

Amasa-n sega-apostu bat jokatu zan. Segalariak, bata liberala ta bestea karlista omen ziran.

Ta juzkalariak (“terzeruak”), geyago eba-ki zuana beretakoa, liberala, etzalako, tranpa eginda besteari eman zion jokua.

Ortatic ixkanbilla latza sortu zan, ta apostulari oyetako bati andregayak despeira eman zion.

Orduan gure aitarengana etorri zan, andregayak nola utzi zuan eta Ameriketara zi-joala bertsoetan jartzeko esanaz. Bai jarri ere gure aitak.

Bertsoetan auxe jarri-azi zion aitari:

“jakin naiko det nola zeraden  
etortzen banaiz bizirik”.

Ta esan bezela, etorri omen zan atzera, bañan ordurako neska ezkondua zan, da ezkontza txarra egiña omen zan gañera.

Nik ez nuan mutil ori ezagutu.



## BERTSOAK

1/ Bildurrik gabe esango det nik  
egin nuben pekatua,  
Santio-mendin sega-apostu bat  
ortxen dago jokatua,  
guk belar geyo ebaki eta  
bestiai eman jokua,  
egun ura zan, bai, neretzako  
oso deskalabratua.

2/ Bildurrik gabe nik esango det  
pasatu zaigun guziya,  
lagun artian koleratuta  
nintzan izketan asiya,  
uste det bada esan nuela  
gauz bat ondo mereziya,  
egun orretan izan genduben  
erremateko auziya.

3/ Andik urrengo nere pausuak  
ziran andregayagana,  
atia jo det, aita leyora,  
gero alaba ta ama:  
"Zu al zerade asarretuta  
bullan ibilli zerana?  
'oyekin orla biar badezu  
ez arrimatu nigana".

4/ Errespuesta nik eman niyon:  
"Aizazu, dama gaztia,  
ez nuan uste modu orretan  
desanparatzen astia,  
zurekin nere oraindañoko  
itzak onela ezta,  
borondatia kunpli dedilla  
merezi badet uzta".

5/ Puntara fiña ez da izaten  
erroparen ilbanua,  
kulparik gabe utzi bearrak  
ematen zidan damua,  
ezagaturik borondatia  
etzendukala sanua,  
zure despeirak irazekita  
Amerikara banua.

6/ Barku batian enbarkatu naiz  
parientiak utzirik,  
beti orrela ibilli gabe  
alkar ezin ikusirik,  
gure Jainkoak irixten badu  
nigana alako grazirik,  
jakin naiko det nola zeraden  
etortzen banaiz bizirik.

7/ Adios nere aita ta ama,  
zuek zerate aurrena,  
senide edo parientiak,  
andregayari urrena,  
konsuelorik bate ez daukat,  
triste da nere barrena,  
zuek utzi ta juan biarrak  
neri ematen dit pena.

## II ANDOAIN-GO ASTO-APUSTUA (1892)

Asto-apustua jokatu zuten bi pamelik Andoainen:

Asto-apustua jokatuba da  
or Andoaingo partian...

Ta gero:

Matias orrek asto txikia  
bañan ibildun trebia,  
zortzi minutuz atzetik asi,  
laster jo dio paria...

Nik eztakit, bañan etziran asto utsak izango, kargakin izango ziran. Olako lekutik olakoraño, zein asto karga igualakin azkarrago joan. Ara nola egiten dituen gizonak apustuak!

Eta asto txikiak aurea arrapatu.

Izango zuten gero diferentziren bat eta gure aitak bertsoak jarri zituan (7).

---

(7) Auek dira Mikelak, Pello Errotaren alabak eman zizkigún berriak eta erdizka kantatu zituan bertsoak. Bañan bertso-puska oyek argi eman zuten, Alsasua-ko *Concepción Mendiluce*-k eman zigun bertso-papera Pello Errotarena zala jakiteko.

## BERTSO BERRIAK

- 1/ Milla zortzireun larogei eta  
amabigarren urtian,  
Uztako illaren amaikian zan  
ori señalementian,  
asto-apustu bat jokatuba da  
or Andoaiño partian,  
bide luzian, San Estebandik  
Iyuyara bitartian.
  
- 2/ Uztako illaren amarrian zan  
apustu ori zerratu,  
Jose Antoniok ginduelako  
astuarekin markatu,  
obia nun zan banerakien,  
nik ere ez nion barkatu,  
bosna pezeta siñale bota,  
ontzako bana jokatu.

- 3/ Jose Antonio astoarekin  
oso zeguan arrotuta,  
obia nun zan orduko berriz  
Matias akordatuta,  
San Estebandik Iyuyaraño  
bidia señalatuta,  
zein azkarrago ara allegatu  
zortzina arroa artuta.
- 4/ Esan dan gisan prestatu gera  
apustuba jokatzeko,  
azkena ara iristen danak  
ontzaku ori galtzeko,  
armoni txarrik izan ez dediñ  
ondoren iñorentzako,  
bien partetik juzkalaritzan  
Toledo ori jartzeko.
- 5/ Orla izketak egiñagatik  
gertatu dira alperrik,  
Jaungoikuari graziak eman:  
ez degu izan okerrik;  
mesede ustez ibilli eta  
zenbaitek ez du eskerrik,  
Jose Antonio ez da piatu  
Toledorekin bakarrik.

6/ Toledo ori gizon prestuba  
bere bizitza osuan,  
arentzat ere armoni txarrak  
egin ditue auzuan  
arren astuak azkar juteko  
biar aini indar etzuan,  
ametituko zitzayon pozik  
lan egin izan bazuan.

7/ Bekaistikuak alimalia  
abieran bai listua,  
utsikan ariñ zebillen baño  
karga aundia eziñ jasua,  
piña zeukala ark uste arren  
ateria du bastua,  
Arimaloko bire-gützian  
erori zayo astua.

8/ Matias orrek asto txikia  
bañan ibildun trebia,  
bost minutuz atzetik asi,  
laster jo dio paria,  
ots egin zion arrentzat azkar  
libra zezala bidia,  
estu artuta bertan erori,  
etzan kontentu jabia.

- 9/ Asto txikiak zortzi arroa  
eraman biar sakuban,  
San Estebandik Iyuyaraño  
gañera mendi altuban,  
baña ori allegatu da  
an berrogei minutuban,  
egon aundirik ark eztu egin,  
ankak dantzatu zituban.
- 10/ Atzetik ori asi zan baño  
allegatu da aurrena,  
zortzi arroa bizkarrian da  
mendi guziak barrena,  
aundiagorik ez baldin bada  
probintzian dan onena,  
jabia zein dan esan biar det,  
astua Zozberrirena.
- 11/ Guk apustuba irabazita  
alare geunden serio,  
zergatik eze panparreriak  
iñun eztuben balio,  
galtzalliaren pamili orrek  
setari segitu dio,  
gero baikuntza egin digue  
lan ori dala medio.



12/ Asto-baikuntza egin digue  
Uztaren amazzpian,  
aurtengu ontan igandian zan,  
ori nere iritzian,  
gure tartian deretxo gabe  
asi nai zuben auzian,  
orrelakorik len ezta pasa  
eguzkiaren azpian.

13/ Guk aziendak len bezelaxe  
bialdu'itugu larrera,  
ataka zabal ikusi eta  
alimaliak aurrera,  
kulparik ezta gureganako  
oyek daukaten kolera,  
lau astorekin bi emakume  
or juan dira kalera.

14/ Asto oyekin juan dirade  
ebia ari duala,  
batek gerrira jaso zuen  
bere gonaren egala,  
an dabillega puntara askatu,  
manera zeukan zabala,  
itxura ederra ematen zuben  
kamixa agiri zuala.

- 15/ Asto oyekin alkatiari  
juan zitzaizkan aurrena,  
bere manera zabal zuala  
kale guziak barrena,  
testigu gabe artubak izan,  
ori gauzarik txarrena,  
ark lege onez bialdu ditu  
andikan juezarena.
- 16/ Oyek ez ditu ibilli-azi  
iñork galtzeko perezak,  
edozein gauza libre dala uste  
emakume alrrebesak,  
baikuntzarekin etxeratu nai  
apustuko interesak,  
azkar astuak entregatzeko  
agindu due juezak.
- 17/ Atrebitu ayek besteren gauza  
kaleraño ekartzia,  
juez jaun orrek agindu eta  
kosta zaye entregatzia,  
kaso txarra da alimalia  
testigu gabe artzia,  
emakumi oik merezi zuten  
biak kartzelan sartzia.

18/ Bi emakume lau astorekin  
kalera dira abitu,  
nere etxequak izatezkero  
biarko zuen gelditu,  
ibilli pranko egiñagatik  
eztue asko serbitu,  
gizonik ezta ondo biziko  
andriak galtzak baditu.

19/ Berri onikan eztu sekulan  
gaizki lanian astiak,  
bi asto ziran Estebanenak,  
Matiasenak bestiak,  
erromeria kalera eginda  
apenas dauden tristiak,  
kastigatzia nai zuen baño  
eztira asko kostiak.

20/ Mingain gaiztoak eragiten du  
munduban asko erida,  
beragatikan papera onetan  
ipiñi degu segida,  
zer pasatzen dan ikasitzia  
askorentzat komeni da,  
bertso berririk etzan jarriko  
ixilik egon balira.

21/ Apustuba ta baikuntzari guk  
orra bertsuak atera,  
al dan guztia zabalduzko  
Euskalerriko partera,  
kasua zer dan ikasitzeko  
emen badago aukera,  
gusto duanak artu dezala  
bost zentimuan papera.

IKUSI: Bertso-papera: "TOLOSA: Imp. de E.  
López", (Concepción Mendiluce, Alsasua).

### III

#### ITURRIOZ-KO SEGA-APUSTUA

Sega-apustua jokatu zuten Iturrioz-en (8) Izuelak eta beste batek.

Izuela ori, Aya-ko Beama deritzayon ballarakoa zan, Izuela baserrikoa.

Aurrena, besteak jarri zizkan bertsoak Izuela orri. Orduan gure aitagana etorri zan, da gureak gañetik jarri zituan, Izuelari nola erari txarra eman zioten, eta nola galdu-arazi zioten, ta ari erari txarra eman ziona il zala ta zeruan sartzea etzala segurua...

Nik eskribituak ziran oyek ere. Bat-edo-bat gogoratuko zait oraindik ere:

---

(8) Iturrioz, Aya-ko partean dago, Ernio-mendi-  
ren egalean. Antziñatik an egiten dira sega-  
apustuak.

Izuelak orduan  
pozik eran zuan,  
paltatu-azi ziyon  
buruko zentzuan,  
derrepente iltzeko  
indarrik etzuan,  
orain esan zazute  
zeñek eman zuan.

.....

.....

.....

.....

agidanian il da  
askoren moduban,  
alakua neke da  
sartzia zeruban.

**EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK**

## I

*“Bertso auek ere neronek eskribituak dira. Bañan pasadizoaz ez naiz oroitzen”. Onela esan zuan Mikelak. Ta bertso banaka batzuk kantatu zituan. Ta bertso oyek eman zuten bide, iñoren izena gabe zegoan papera Pello Errotarena zala jakiteko.*

### BERTSO BERRIAK

- 1/ Disponitu det asunto bati bertso berriak jartzia, zeñek naiko du modu onetan jendiak autan artzia? ainbesteraño ez det seutitzen gure ezkontza galtzia, bafia pena det kulparik gabe orrela engañatzia.



2/ Nungoa naizen esan biar det  
..... det graziya,  
orain Pasayan enpliatzen naiz  
.....-n jayo ta aziya,  
Naparruako dama batekiñ  
nintzan tratatzen asiya,  
enredo asko probetxu gutxi  
nik dedan irabaziya.

3/ Neskatxa ori emen bizi da  
baita .....-n jayua,  
abisaturik azaldu ziran  
zedukan opiniyua,  
nereganako nola zedukan  
gutzizko amoriyua,  
fabore zala uste nuen da  
izan det kontrariyua.

4/ Enpeño on bat bialdurikan  
ninduen erakarriya,  
itzegiteko billatu nuen  
gramatika irakurriya,  
merienda ere bazendukazun  
guretzat pronto jarriya,  
mudantza baizik izan ez dezu  
mundu-engañagarriya.

5/ Konprometitu nai zukian da  
afana franko bazuan,  
fiaturikan agindu niyon  
satisfaziyo osuan,  
itzak ederrak, biotza falso,  
kariño fiña auzuan,  
publikatutzen astera nua  
merezi dezun kasuan.

6/ Esaten niyon: "Arlotia naiz.  
ondasun asko gabia,  
prezisamente ez naiz izango  
diru askoren jabia".  
Erantzun ziran: "Baldin bazera  
lana egitea trebia,  
sayatu ezkeru luzituko da,  
zer da bizitza obia?"

7/ Langillia ta kondutakua,  
kontentu zifian orduban,  
orain baditu milla pretesto,  
guk ez dakigu zer duban,  
orgullua edo grandeza bada  
gaurko egunian munduban,  
ez banintzaden zuretzako ona  
ez biartzia zenduban.

8/ Okasiyo bat emen izan da  
juan dan aurreko urtian,  
ni ere bistan fortunatuba,  
nerau ez nitzan partian,  
nere lagunak, zuen disputa  
ori biyontzat kaltian,  
ez tokatzia obe litzake  
orrelakuen artian.

9/ Disputa ori izan ezkeru  
pleituban dute segitu,  
oraindik ere nik igual det  
lenago ainbat kreditu,  
lardaska txarrak ondorenian  
neka-biriak baditu,  
obra gaiztorik egin dedanik  
apenas dezun aditu.

10/ Kaso oriek izaten dira  
pisubak edo grabiak,  
neri etzaizkit iduritutzen  
besterik bañon obiak,  
pazientziya emango al digu  
zeru ta lurren jabiak!  
egun batzuek preso juan zaizkit  
kulpa aundirik gabiak

11/ Aziyo ortan nik ez det egin  
tokatzen ez dan gauzikan,  
disputa edo soberbiarik  
etzat gustatzen kasikan,  
bestek etziran ezer egiten,  
ni ere egon pozikan,  
mantxa gaiztorik etzat arkitzen  
an izatia baizikan.

12/ Neskaxa ori asi zitzaidan  
tristurak manifestatzen,  
orretarako konpromisuak  
etzaizkiyola gustatzen,  
lenago bero izanagatik  
nunbait asi da oztutzen,  
orrekiena galdubagatik  
ez naiz biziro estutzen.

13/ Berak biartu ninduben eta  
orain berak despedira,  
zenbait neskatxa askoren herri  
jakin zaliak oi dira,  
antz eman gabe ez naiz egondu  
len ere orri begira,  
orixe bezin neskatxa fiñak  
geyago ere badira.

- 14/ Ia, gaztiak, gurekin artu  
guztiyok eskarmentubak,  
txit mudakorrak izandu dira  
dama orren pensamentubak,  
beretzat ere probetxu gutxi,  
neretzat sentimentubak,  
ezkontzeko itzak ematerako  
ondo atera kontubak.
- 15/ Ezkontzeko itzak edozein moduz  
ematekuak ezta,  
zenbaitek bati agindu eta  
“ai baletorke bestia!”,  
endemas ere ederra bada,  
aberatsa ta gaztia,  
ez da biziro ikaratuko  
len dadukana uztia.
- 16/ Aberatsakin tratatziatik  
galdu du nerezikua,  
pesadumbriak manifestatzen  
izandu zera pijua,  
auzo batetik bestera ere  
sombriillarekin dijua,  
interesetan ez dakit zer dan,  
lujua badu naikua.

17/ Kaballeruakiñ pasiatzen du  
egunaz eta gabian,  
beso ondotik artutzen dute  
nik baño modu obian,  
enteratuba egon biar du  
de-braceteko legian,  
eusten diyote erori ez dediñ  
lurrera uste gabian.

18/ Penagarriyak izaten dira  
pobrien paraderuak,  
orrelakuak ezagutzeko  
ez gaude mutill eruak.  
gizon ederrak izketa leunak,  
gañera boltsa beruak,  
gugandik gusto partikularra  
dizute kaballeruak.

19/ Zazpi ille betez esperantzan  
ez naiz alferrik egondu,  
nerekin ezer ez duela izan  
orain esaten omen du,  
alkarrekin maiz ibilli gera,  
iñoiz etxera lagundu,  
geyago ere esango nuke  
gogo aundiya bagendu.

20/ Nerekiñ nola tratatu dezun  
jendia frankok badaki,  
pasa dan gauza ukatutzia  
nik ez deritzat egoki,  
desanparuan utziyagatik  
ez nazu asko erruki,  
nik andregaya billatuko det,  
ez kuidadorik eduki.

21/ Ezkontzia da gauza erraza,  
sinisturikan oi nago,  
lengo moduban bizi biarko  
beti bildurak banago,  
fraile juateko pensamentuban  
prezisamente ez nago,  
zuk ere on bat artu ezazu  
urdiñdu baño lenago.

22/ Bertso herriyak atera ditut  
dibertsiyua sortzeko,  
konbeni dira buru ariñak  
juiziyuan sartzeko,  
balorerikan baldin badezu  
oyen ordañak jartzeko,  
prebeniturik ni egongo naiz  
paper eder bat artzeko.

23/ Despartitubak gelditzen gera,  
len zifian nere maitia,  
batzuek asko arritzen dira  
zu neregana juatia,  
biotzetikan etzan izango  
zenduben borondatia,  
agur, Josefa, eskerrik asko,  
ondotxo bizi zaitia.

2/2: Mutillaren izena.

2/4: Mutillaren jayoterrria.

3/1: Neskatzaren jayoterrria.

IKUSI: Bertso-papera: "Eibarren: Pedro Orúe-en moldizteguian". (G. Mugica zanaren bertso-bilduma).



## II

Lengusu-ezkontza egin omen zuten. Biak apellidu batekoak ziran, Naparroakoak.

Aitak alabari esaten omen zion irurogei ontzako dotea emango ziola, ta arrio "sufizientea" ere bai.

Ala, ezkontza tratatu zuten, bañan gero alargun zar batek —aberatsa omen zan ura— neskatxa pretenditu zuan.

Neskatxa bera joan omen zitzayon mutillari esatera:

—Orrek pretenditu nau, baña ni ez nua agure zar ori artzera.

Bañan denbora asko baño len, mutillak berriz ere aditu zuan zerbait bazebilkitela, ta neskaxagana joanda, onela esan zion:

—Nik ola ta ola aditu det, ba, neskatxa.

Ta neskak, malkoa zeriola, agure zar arekin ezkontza zerratua zutela aitortu zion.

Orduan mutilla gure etxera etorri zan.

kantak jartzera. Oyek ere nik eskribituak dira. Ni ezkondu baño lenago eskribituak dira, ta ez dira oraingoxeak.

Kanta-paperak inprentatu ta zabaldu ondoren, agurea bera etorri zan gure etxera. Biziki izengoitia zuan. Agure xar txiki-txiki anka-okker bat zan. Ala esan zion gure aitari:

—Nik bertsorik merezi al nuan?

—Nere enpluia orixe da, ta orregatik jarri nituan.

—Nik, palta nuan bezela, andregaya pretenditu nuan.

—Ta ez al zenekin, neskatxa len itza emana zala, ta alakoa ez dala pretenditu bear?

—Ba, orain nere alde jarri itzazu.

Bañan gure aitak etzion agindu, ta mutillagana joan zan. Zein da nola etorri zitzaion kontatuta, ia zer egin bear zuan galdetu zion.

Mutilla, bertso-jartzea zenbat kostatzen zan zekiena zan noski, —bost durokoren bat, edo—, ta ez jartzeagatik beste orrenbeste eman zion.

Beraz, bein jarri ta bi jornal kobratuta, etzan asarre gure aita.

## BERTSO BERRIAK

1/ Jaungoikoari nago  
grazi baten eske,  
bertso berri batzuek  
jarri nai nituzke;  
bide gabe naizenik  
ez det bada uste,  
zer gertatutzen zadan  
esango det laster.

2/ Ezkontza egin nuen  
lengusu batekin,  
bi urtian tratatu  
degu alkarrekin;  
itxuraz oraindako  
egonduba da fin,  
bafia zer egin diran  
beazue jakin.

3/ Nerez napartarra naiz  
.....-koa,  
andregai ustekoan  
ez da apartekoa;  
nere lengusuba da  
.....-koa,  
..... du  
grazi pontekoa.

4/ Ezkontza asi genduben  
galaya ta damak,  
bazekiyen neskatxa orren  
aitak eta amak;  
etzan eskusarikan,  
konforme dianak,  
siñalatu zituen  
dotia eta danak.

5/ Neskatxak urte biyan  
etxoin nezala,  
ordurako ederki  
prestatuko zala,  
dote eta arreo  
bear dan bezela,  
nik bayetz esan niyon  
egongo nintzela.

6/ Urte biyan franko da  
orrela egotea,  
irurogei ontzako  
esan zan dotea;  
gañera arreo  
sufizientea,  
nai zuela alabari  
oyek ematea.

7/ Orrela zerratua  
gendukan ezkontza,  
Erromati ekartzeko  
paperaz dispensa;  
bestela ez diteke  
lengusurik pasa,  
ori da lenagotik  
usatzen dan gauza.

8/ Paperak biralduta  
ayek etortzian  
gu alkarrekin geunden  
ezkontzeko ustian;  
gero serpiente bat  
sartu da tartian,  
bitarteko ta guzti  
dama orren etxian.

9/ .....  
dago alarguna,  
lengo emaztia ilda  
nai luke laguna;  
arentzat bitarteko  
koñadua jauna,  
emen aitatzen degun  
neskatxa orrena.

10/ Alargunak pretenditu  
duanian dama ori,  
denbora gutxi barru  
etorri zat neri:  
“Itza emana nago  
lenago ni zuri,  
ez nua ni artzera  
anka zabal ori”.

11/ ..... ori juan zan  
Erremu-gabea,  
itz ematera aita  
ta amaren aurrean;  
lengua utzitzeko  
aitak gogorrean,  
ibilliya du sobra  
itxura txarrean.

12/ "Aita, emen ari da  
esaten alperrik,  
ez det nik orrelako  
agure bearrik".  
Ezpazuen egiten  
aitaren esanik,  
etziyola emango  
dote-arreorik.

13/ Len berak agindubak  
irurogei ontzako,  
ni konforme negoan  
utsik artzeko,  
osabak kariñorik  
ez du neretzako,  
orrek alaba nai du  
Bizikirentzako.

14/ Lengo emazia ill da  
illebeterako  
berri billa astia,  
bera bada franko;  
aztu zitzayon orri  
juandakoa pronto,  
pujatu ta kentzen du,  
pegatu dit bapo.

15/ Orrelaxen nastu du  
ark gure tratuba,  
nere kontra da ori  
manifestatuba;  
bera anka zabala da,  
bizkarra okertuba,  
nobiyo ederrekin  
ez da gustatuba.

16/ Modu orretan oyek  
ibilli dirade,  
osaba ni uzteko  
oso zeguan trebe;  
falsoa atera da  
..... bera're,  
ezkontza egin due  
nere berri gabe.

17/ Ni jakinda neguan  
nola ibilli zian,  
Uztaren amaikian  
juan nitzan goizian,  
ia ote zegoan  
lenagoko itzian,  
malkoa zeriola  
ezetz esan zian.



18/ Nere aditzalleak,  
au goguan gorde:  
falsoak ematen du  
asko pesalunbre,  
.....-k alaba  
Bizikiren mende,  
orain ni utzi naube  
ez diru ta ez andre.

19/ Orra nik deklaratu  
nere iritziyak,  
ontara obligatu nau  
ni zuen faltsiyak,  
zuen mende ez daude  
gonadun guziyak.  
andregayak baditut  
Jaunari graziyak.

20/ Gayean dagoanak  
bertso oyek entzun,  
merezi ez dezunik  
bat apenas dezun,  
zuretzako dirade,  
.....  
ondo pensa ezazu  
zer egiten dezun.

- 3/2: Erriaren izena.  
3/6: Neskatzaren baserriaren izena.  
3/7: Neskatzaren izen-abizenak.  
9/1: Alargunaren izen-abizenak.  
11/1: Alargunaren izena.  
16/6: Neskatzaren izena.  
18/5: Neskatzaren aitaren izengoitia.  
20/6: Neskatzaren izena.

IKUSI: Bertso-papera: "Tolosan: F. Lopez-en moldizteguien". (Inazio Zabala, Olazabal-berri, Alzo).

Tolosako Timoteo Adurriaga zanaren eskuz idatzitako bertso-mordoa: 11/3: itz ematera aita; 12/3: ez det nik bear orrelako agurerik.

### III

Bertso auek ere gure aitak jarriak dira. Badakizkit nik kantan, eta pasadizua ere bastante.

Gizasemea etorri zan gure etxera. Gogotan izaten det. Bikaña zan.

Gure aitari esan zion:

—Pello, bertsoak jartzera nator.

—Zer degu ha?

—Ara: etzegoan gure errian irabazi aundirik. Alpargaterian aritzen nintzan. Ta Pasayara joan nintzan jornal ohea irabazteagatik.

“Andregaya or utzi nuan errian. Ta Pasayan lanean ari nintzala, nere andregaya beste batekin zebillela esan zidaten.

“Errira bueltatu ta illuntze batean andregayaren etxera joan nintzan. Aita ta ama oeratuak ziran.

“Esan nion beste batekin ola nola zebillen, ta bullan asi zan.

“Ta bullan asi zanean, aita alkandora utsik etorri zan sukaldera zalapartaka, ta ama ere atzetik.

“Len bezela izateko esan ziguten. Guraso zarrak itzegin zutela ta bayetz, erantzun zuan nere andregayak. Bayetz ta bayetz, konforme danak.

“Ta gero urrena, karta bialdu dit, ura pozik ezkonduko zala, bañan kalean mantentzea ikaratu egiten dala, ta despeira bialdu dit.

“Orain kantik jartzea nai nuke.”

Ta ala, jarri zizkan. Badakizkit nik geyentxuenak oraindik ere (9).

---

(9) Mikelaren alabak: Gure aitik ere kantatzen zituan. Iturriotz aldean barruti aundia genduan. Etxerakoan, gu gurdi gañean belarrian jarri ta aita beyakin aurretik. Aita kantari asten zan ta gu pozik aitaren bertsoak ixil-ixilik entzuten gurdi gañetik.

1/ Lenago nitzaden ni  
alpargaterua,  
artan e bazeguan  
naiko endrerua,  
gero argintzarako  
egin zat gogua,  
irabaztiagatik  
jornal aundigua.

2/ Ni jakinda negoan  
nola ibilli zian,  
nigana notiziak  
allegatzen zian,  
juan da esan nion  
berari etxian:  
"Juana, etzaude noski  
lenagoko itzian".

3/ Juana ori armoniyan  
altutik asi zan,  
neroni ere ixilik  
egongo ez nitzan,  
fameliya orduko  
oeratua izan,  
aita alkandora utsik  
gugana etorri zan.

4/ Aditu zutenian  
bulla ori dana,  
larri asko etorri  
ziraden gugana,  
aita alkandora utsik,  
jantzi gabe ama,  
.....  
.....

5/ Len bezela izateko  
aitak eta amak,  
bayetz erantzun zuan  
laister asko Juanak,  
itza goardatzen du  
berez fiña danak,  
baño palsuarekin  
orrelako lanak.

6/ Orain abisatzen dit  
palsuak bezela,  
nik ere bai aditu,  
arritzen nitzala,  
lenagoko itzian  
konforme etzala,  
nai banuan beste hat  
billatu nezala.

7/ .....

.....

etzuala ukatzen  
itza emana zala,  
kalian mantentzia  
ikaratzen zala,  
bestela ura pozik  
ezkonduko zala.

8/ Begira zagun ondo  
mundu zabalían,  
zurekin zein daguan  
igualdadian,  
jantzi eta mantendu  
formalidadian,  
ederragua pranko  
badago kalia.

9/ ..... .....

deritzayonari  
abisatutzen diot  
dam'orren aitari,  
arto-etxe on batera  
bial zala ori,  
an gustora egon dedin  
eder eta lori.

10/ Antonio .....  
grazi neronena,  
.....-n jayo ta  
Antxo-n nagoena,  
Juanarentzako kankak  
jarri ditutena,  
au da errespuesta  
zure kartarena.

11/ Juana .....  
dam'orren graziya,  
.....-ko .....-en  
jayo ta aziya,  
kalian daguala esanez  
mantenu eskaxiya,  
izan ere nork ase  
puska ori guziya?

- 9/1: Neskatzaren aitaren izen-abizenak.  
10/1: Mutillaren abizena.  
10/3: Erria.  
11/1: Neskatzaren izen-abizenak.  
11/3: Erria ta baserría.



## IV

Naparroako gizaseme gazte polit bat etorri zan gure etxera. Gu artean neska gazteak giñan. Ala esan zion gure aitari:

—Zu al zera Pello Errota, Astiasuko bertsolaria?

—Bai, jauna, serbitzeko.

—Ba, lagun baten kaso det, bertsoak jartzeko.

—Ia ba, esplikatu nola dezun.

Kontatu zion, bere lagunak neskatxa batekin tratua egin zuala, ta erregalatu zizkaila bost duroko eraztuna, ta zapata berriak ere bai.

Bañan gero lagun orri esan ziotela, or nunbaiten “azari zar bat bazebillela anka-biko agurua” ta kaso egiteko. Ta ala, zelatan jarri zala lagun ori gau batean beste batekin.

Ta andik ikusi omen zutela “azari zar” ura neskatxaren etxera zetorrela. “Azari zar” ura arakiña amen zan ofizioz, eta Tolosarra jayotzez.

Ta neskatxa oyea zegoala, ots egin omen zion goitik atsoak. Bitartean nobioa dana ikusten. Ta ikusi zuanean zer itxura itxusi zijoan, andik alde egin zuala.

Ala kontatu zion arek, baña pasadizua esatean, begian negarra agertu omen zitzaion, da gure aitak ala esan zuan bere artean:

—Onak lagunaren izenean kontatu dik, bañan bera dek.

Ta kontatzen bukatu zuanean, bertsoa bota zion, lagunaren izenean kontatu zuala, bañan bera zala esanaz. Bertso orren erdia badakit nik:

.....  
.....  
.....  
.....

Pello Errota da aspaldi ontan  
ortan segitzen dubena.  
bildurrik gabe esan zaidazu  
nola da zure izena?

Ta mutillak erantzun zion bayetz, bera zala, Prantzisku Mari izena zuala ta lotsatu egiten zala bere izenean kontatzeaz.

Ta gure aitak beste bertso bat bota zion orduan. Orrena ere, erdia besterik ez dakit:

.....

.....

.....

.....

kontu oriek aditu eta  
sekulako naiz arritu,  
kuidado gabe egon ziñezke,  
beriak entzungo ditu.

Mutillak orduan, bere pozean, patrikatik atera ta dirua eman zion gure aitari.

Nik eskribitu nituan bertsoak. Gero Tolosara joan giñan aita-alabak. Mutil orrekin bazkaldu genduan Zerkausi aurreko ostatu batean. Kantatu zizkan gure aitak bertsoak, eta mutil arri asko gustatu zitzaizkan.

Gero gure aitari ala esan zion:

—Ta neskatxa au ezkontzeko al daukazu?

Nik ixil-ixilik egon bear nuan, bañan ni orduan ere “Txintxarriya”, ta “Bai, ezkongai nago, bañan badet zeñek artua” esan da despatxua eman nion.

Bertso guztiak ez dakizkit. Ez nien ainbeste estimazio artu. Geyago gustatu, ta kanta batzuk besteak baño gogo geyagorekin artzen nituan buruz ikasteko.

1/ .....  
.....  
.....  
.....

au .....-en jayua da ta  
gañera bentan aziya,  
kanta oyetan agertuko det  
egin diran maleziya.

2/ Emezortzi urte daduzka orrek,  
oraindik dama gaztia,  
orrelakuak gutxi obiak,  
asko komeni ezitia,  
gertatu zayo neskatxa orri  
nobiyo orrek uzitia,  
orain kontentuz ote zerade?  
aizazu, dama gaztia.

3/ Apirillaren amaseyian  
ori Santa Engraziyan  
mutil askori keñuka egon zan  
meza denbora guziyan,  
obra onari burla egiñaz  
oso modu itxusiyan,  
orrelakua nola egongo zan  
Jaungoikuaren graziyan?

4/ Lagun on batek enkargatuta  
artu det erreparua,  
azari zar bat badabillela  
anka-biko agurua,  
neskatxa orri kontu egiteko  
ez banitzaden erua,  
egiña dago lenguak baño  
gauza aldrebesagua.

5/ Kuidado gabe zebiltzan oyek  
alkarren berri jakinda,  
..... ori lenagotikan  
zegon oyian etzinda,  
arakiña da bere ofiziyoz,  
azari ori Joakin da,  
leyo-zulotik zelatan negon  
odol danak irakinda.

6/ Lenago ere egin zituen  
modu ortako pausuak,  
bertan gelditu bear zuala  
mutil maleziosuak,  
.....-rekin lo egiteko  
otsegin zion atsuak,  
su eman eta erre biar du  
orrelako gurasuak.

7/ Juan zanian itzegiñ zion:  
"Emen al zaude, maitia?",  
argiya eskuan zeukalarikan  
miatu zuan oi-pia,  
ustez seguru jarri zanian  
gero itxi du atia,  
jakiña dago nora izango zan  
aren urrengo kolpia.

8/ Pasadizua deklaratuaz  
banua arrazoyian,  
nere gorputza estu zeguan  
zelatako garayian,  
odol guztiak irakiñ eta  
barrena lertu nayian,  
otsegiñ nien: "Ederki zaute  
dama-galayak oyian!".

---

1/5: Erria.

5/3: Neskatzaren izena.

6/5: Neskatzaren izena.

## V

Nobioa bera etorri zan, da berak esplikatu zuan pasadizoa, zan edo etzan bezela. Naparroatik etorri zan au ere. Ni errotan ari nintzan.

Neskatxaren aita asi omen zan ezkontza ori tratatzen, aiek biak alkarrekin esposatuta ikusi nai zituala-ta. Neskatzak txanponen batzuk izango zituan da, aukera ederra zala.

Mutilla errotaria zan, da egun batean, zakua artuta, iriñetara joan zitzayon neskatxa ori; bañan mutillak etzion kasorik egin. Ezta bigarreanean ere. Irugarrengoan joan zanean, ala esan zion mutillak:

—Pretensiyua izan nuan nik ba zurekin.

—Bai, iya oraintxen etsi nuan; etzidazun kasorik egiten da...

Ta egun artan bertan erabaki zuten ezkontza.

Bañan neskatxa orrek, ama ilda, ugazama zeukan. Aitak ayek bere etxera esposatzea nai zuan; bañan neskatxak, ugazama gaiztoa zala ta, etzuan nai. Aren ondora etzi-joala, esan zion aitari.

Naparroan ala usatuko da, ta neskatxa ori itara garia ebakitzera joan zan. Etorri zanean, mutilla bisitatzera joan zitzayon, da ordurako neskatxak despeira prestatua zeukan.

Zer aitzeki zuan deklaratzeko, galdetu zion mutillak; eta, orduan ezer esan gabe, gero leyotik sartzen zala kontari asi zan. Orregatik esaten dio bertso batean: "etxe artan etzuala itzegin aita testigu etzala".

Nik eskribituak dira bertso oyek. Inpren-  
tatuak ziran. Gogoan ditudanak esango di-  
tut:

1/ Juana Joxepa ..... ori  
ondoren ibilli zana,  
..... apellidua  
Joakin da nere izena,  
gañera herriz nere opizioz  
errotan bizi naizena,  
jayotzaz ere .....-kua,  
au da izketa zuzena.



2/ Dama orren aitak nere aitajauna  
billatu zuan lenbizi,  
gu alkarrekin esposatuta  
nai giñubela ikusi,  
arren berriya al zan lenena  
egin nezala ikasi,  
gero azkenian zer egin didan  
biar det adierazi.

3/ Aita jaun ori allegatu zat  
ordena zuan bezela,  
ta esan zidan ezkondutzeko  
aukera ederra bazala,  
Juana Joxepa ..... ori  
nitzaz gustatutzen zala,  
errespuesta nik eman nion  
gero egongo nitzala.

4/ Aurrenekuan kasorik ez nik,  
eldu da bigarrenian,  
denbora asko baño lenago  
andikan ondorenian,  
zakubarekin etorri eta  
jarri zat aldamenian,  
ikasi arte etzegin ori  
oso deskansu onian.

5/ Irugarren txandan etorri eta  
izpidia zan asiya,  
pretensiyua nola izan nuan  
esan nion lenbiziya,  
neskatxa orrek errespuesta:  
"Iya artu nun etsiya",  
egun orretan egin genduan  
geren ezkontza guziya.

6/ Dama orren aitik, aren etxera  
biar nuala ezkondu,  
nik esan nion neskatxari ta  
ezetz aguro esan du:  
"Gure ugazama gaiztua da ta  
arekin nola konpondu?  
nayako nuke beste leku bat  
eskojituko bazendu".

7/ Izketa oyek ola pasata  
ustez seguru nobiya,  
itara jun zan bide luzian  
ebakitzera gariya,  
etorri zanian juan nintzayon,  
ori da zuzen egiya,  
orduko oyen izketa etzan  
neretzat gustagarriya.

8/ .....

.....

neskatxa ori aldamenian  
orduban zitzaidan jarri,  
ugazama're azaldu zan da  
danak begira alkarri,  
despedidaren nobedadia  
orduban zan irakurri.

9/ Orain kontari or omen dabil  
gezurti zar bat bezela,  
beste aitzekirik sortu ezinda  
leyotik sartzen nitzala,  
etxe orretan ez det itzezin  
aita testigu etzala,  
pozaz zoratzen jarriya nago  
zugandik libre naizela.

---

1/1: Neskaxaren abizena.

1/3: Mutillaren abizena.

1/7: Erria.

3/5: Neskaxaren abizena.

## VI

Arozpide, orduko aizkolari bat zan. Oso ona omen zan. Astiasun denbora-puska batean lanean aritua zan, bañan etzan erritarran; goikoa zan, Azpeiti-Azkoiti aldekoa (10).

Ta Pamplona-n apustu bat jokatu ta irabazi egin zuan.

Ango jende napar ura, gogor-gaiztoa omen zan oso, ta joko ez bazuten, apustua bukatu, aldatu ta tabernako leyotik saltatu bear izan omen zuan Arozpide orrek. Leyearen parean kotxea zai omen zeukan; sartu ta alde egin omen zuan.

Andik etorri ta biaramonean. —ez dakit nik zergatik— andregayak despeira eman zion.

---

(10) 1893-ngo Azpeitiko euskal festetan, korrika-apustua Arozpide onek irabazi zuan. Ikusi: "Azpeitiko Premiaren Bertsoak, (1893-1895)", 10gn. orri-alde, Auspoa-ren 27-gn. alea.

Orduan, gure aitarengana etorri, ta andregayarentzat bertsoak jartzeko eskatu zion. Bai jarri ere.

Bertso onak ziran ayek ere. bafian nik ez dauzkat danak gogoan:

1/ Aditzerak emango  
dizkizuet kantan,  
sekula ez naiz ibilli  
biar eztan plantan;  
ez inor engañatzen  
zu bezela tranpan,  
Arozpide eztago  
andregayen paltan.

2/ Andregai asko dago  
gaurko egunian,  
orregatikan nago  
deskansu onian ;  
ezkontza galdu dala  
jakin dutenian,  
iru etorri zaizkit  
biyaramonian.

3/ Nere barrena dago  
guztiz alegere,  
ikus'itudanian  
ainbeste mirabe;  
izarrak dirurite,  
ederrak alare!  
egitia espero det  
andre baten jabe.

4/ Maria Oñ-Ederra,  
zerez Deba-kua,  
iruri despedida  
len emandakua,  
orrela uzten badezu  
laugarren majua,  
etzera aterako  
neskatxa bapua.

5/ Ara nola diraden  
gizon oyen pamak,  
batere aztu gabe  
jarri ditut danak  
zurekiko tratuak,  
paper oyen lanak,  
Pamplona-ko premiyuak  
pagatze'itu danak.

**ARANTZAZURA**

## ARANTZAZU-KO PELEGRINAZIOAK

Orain baño ugariago egiten ziran orduan pelegrinazioak. Astiasuk ortara zuan afana guzia.

Ni aitarekin bi aldiz joan nintzan. Aurrena amasei urte nituala, ta urrena ogei bat urterekin.

Brinkolarano trenean joaten gihan. Brinkolan trenetik atera, ta ekin mendiari. Mendi guziak oñez pasatzen gihuzen aruntzean. Ura zan pelegrinazioa! Aurrena aldapa gora joaten gihan. Ura joanera! Gora allegatuta, andikan begiratu ta Arantzazu bean ikusten zan.

Lenengo urtean, gure aitak, joan baño len, kankak jarri ta erriko neskatxai erakutsi zizkigun. Gero ara allegatu gihanean, elizan sartu ta auxe kantatu genduan danok batera:



Erregu egin beza,  
Ama, gugatikan,  
irten geran merioz  
bada Zugatikan;  
kuadrilla aundia gatoz  
Astiasutikan,  
Birjiñari agur bat  
egitiatikan.

Despeiran ere zer esanda joan giñan banekin nik lenago: "Adios, agur, Ama Zerukoa, Ama Arantzazukoa,...", bañan orain ez daukat gogoan.

Ta gero alako funtziyo ederrak egiten ziran: danok konpesatu ta komulgatu; Meza nagusia, ta sermoi ederra ere bai.

Arantzazun badaude guk bezela itzegiten dutenak. Bañan San Antonion? Jesus! Ango itzegitea! "Konpesiñuagaz, komuniñuagaz,... mezagaz,..." dana gaz-ekin. Bañan Arantzazun ez.

Egun batean joan ta urrengoan etortzen giñan. Gauda, herriz, ango ostatuan pasatzen genduan.

Etxe artan lurreko sua zuten, da arbolik aundienak suaren bi aldeetan oso-osorik erretzen jarrita zeuden. Aik arbolak!

Ta amona bat, labean erretako arto aun-

di hati eutsita, ari zopak kentzen ari zitzaion, porru-salda egiteko. Arta-zopak esnearekin egosita bai, bañan porru-saldarekin ez dira gure aldean beñepiñ jaten, da parrez egon giñan ari begira.

Ura beretzat zuten. Astiasuko jendea, berriz, xardin zarra bazan ere, bakoitzak bere puxka eraman zuan.

Baña Don Bitorianorekin joan giñanean, bertako jana izan genduan. Ta begia aterako zuten garbantzu otz-otz batzuk eman zizkiguten. Ta tomatia ere? Jesus! Astokia sartu ziguten ere eztakit. Bai, Don Bitorianorekin joan giñanean beñepin, gusto gaiztoko jakiak izan giñuzen.

Lotarako, emakumeak goyen izaten giñan belar-pillan-da, ta gizasemeak berriz bean.

Gure aita, Don Tomas apaizarekin pasiatzen gelditu zan. Aiek lotara etziran beñepin joan. Kontrariorik etzuan bañan gau guzia bertsotan pasa zuan.

Ta goyen, emakumeak giñan tokian, itotian jarritako ontzi zar batzuk urez beteta zeuden, da emakume batek ayetako bat anakakin jo ta bota egin zuan.

Bean berriz, mutilzar bat, aberatsa bai bañan erdi eroa zana zegoan, da urak so-

lairuko zirrikituetatik erori ta busti egin zuan.

Ta orduan ola esan zion gure aitari:

—Pello, bertsoa kantatu bear dezu, gure erriko atsoak peleginazioan etorri ta pixa egin digutela goitik!

Aiek parrak eta algarak egin giñuzen danok! Apaizak ere bai.

Azkena orain urte batzuk izan giñanean, ango amona xar bati ala esan nion:

—Neskatxa bat ere bazan ba emen, ni ola ta ola izan nintzanean.

—Neu izango nintzan zu neskatxa baziñan.

—Bai, ni zarra ta berorrek ere zarra bear.

—Ta ematen al diozu etxe oni orduko antzik?

—Atariko antigualako arkuak; gañontzean ez du.

—Bai, ordukoak, atariko atea bakarrik daude.

Urte batean, Brinkolan ala esan genion gizon bati aruntzean:

—Bueno, zuk bidea erakutsi.

Ta guk danok pagatuta, giyari atera genduan gizon ura.

Bañan onuntzean arek zer egin zuan? Usurbilko emakume zar bat, aberatsa, erren aundia zuana, bagenduan; da amona aberats arri lagun egiteagatikan, bota gindun gu pobre guziok aurrera, ardiak bezela.

Erren ura zuzen ekarri zuan, baña besteak alaxe ibilli giñan al-zan al-zan tokira joanda. Batzuk Antzuolako zulora ta besteak nora etzekitela, galduta ibilli gifian.

Brinkolara allegatu giñanean, alako ta alako palta; lagun asko palta zala. Jesus, ura zan ura! Baña danok, nolabait ere, gerrogo bada ere, trena arrapatzeko modua egin genduan. Etzan utsa! Etzan uste, ta ala esan genduan:

—Batzuk izango giniñan dirua gero, biyar joateko?

—Gaur joateko bai, bañan biyarko ez giniñan izango.

Bañan Jaungoikoak lagun egin zigun.

Ta Brinkolan, Aita-gure bat ala errezatu zuan Patxi Ibiyaga zanaren amak:

—Konpañiya ontatik mundutik lenena paltatzen danarentzat.

Ta bera il zan aurrena.

Alaxe joaten giñan gu garai artan Arantzazura. Orduan bitan, da geroztik beste lau bider izana naiz.

Gure aitarekin joan nintzan batean, bosna kuarto pagatu genduan ostatua. Ta orain urte batzuk, azkena izan nintzanean, berriz, bost duro. Lau lagun giñan, da ogei durokoa eman nuan. Nik pagatu nizkan danai. Orduan ere atso onen bearra bazan.

## ARANTZAZUKO BERTSO-PAPERAK

Gure aitaren Arantzazuko bertso-paper oyek olaxe jarriak izango dira:

Lenengoa, nik amasei bat urte nituala joan giñanean, da elizan sartu ta danok batera "Erregu egin zazu..." kanta oyek kantatu giñunean.

Bigarren papera izango zuan, nik ogei bat urte nituala, Don Bitorianorekin joan giñanean. Obispoaren etorrera zan, da kandelak piztu, ta kilometro batean kamioaren bi aldeetatik lagundu genion (11).

---

(11) Arantzazu-ko Aita L. Villasante-ren eskutitz batetik: "1963 urriak 19: ...Arantzazuko Ama Birjiñaren koroazioa 1886 urtean izan zan, garagarri-laren 6-an. Eta bai egun orretan eta bai aurreko eta ondokõ egunetan elizkizun aundiak eta sonatuak izan ziran emen Arantzazun. Koroa jarri-zuena, Vitoriako Obispo Jauna izan zan: Don Mariano Miguel Gómez, alegia. Aita Adrian Lizarralde bere Arantzazuko Kondairan kapitulu oso bat dakar gertaera ortaz ("Historia de la Virgen y del Santuario de Arantzazu", cap. XVIII: Solemne Coronación canó-

Irugarrengo joan-aldian, ni ez nintzan joan. Gure aita, gazterik il zan Dolores aizparekin joan zan.

Brinkolara baño len, trena deskarrillatu egin zan. Bertsotan ala jarri zuan gero gure aitak:

Ango izkamilla ta  
ango karraxiya,  
estimatutzen zuan  
nork bere biziya...

Baña trena deskarrillatuagatik, etzuan

---

nica de la sagrada imagen). Irakurri det kapitulu au, eta Pello Errotaren aipamenik eztator an, baiña ala ere zuretzat jakingarria izan diteken dato bat arkitu det: Asteasuko peregrinazioa izan zala korozioiko bezperan emen. Ona emen zer dion Aita Lizarralde:

Pág. 456: "Día 5 (de junio, víspera de la Coronación): Llegó el Ilmo. Sr. D. Mariano Miguel Gómez, Obispo de Vitoria, a quien se le dispensaron los condignos honores de Delegado del Capítulo Vaticano en la villa de Oñate. Acompañábanle el P. Comisario Provincial, Fr. Esteban de Epelde, Fr. Ignacio de Eguía, Guardián del convento, y una representación del Ayuntamiento de la Villa. En la capilla del misterio de la Coronación aguardábanle la Comunidad y la peregrinación que aquel mismo día acudiera de la simpática villa de Asteasu". Eta emen nota bat jartzen du Lizarralde, orrialde azpira deituaz. Orra notak zer dion: "Es de grata memoria la peregrinación de esta villa guipuzcoana por las repetidas veces que ha subido a Aránzazu y siempre edificando con sus ejemplos de piedad. En esta ocasión donó una limosna de 132 reales".

iñork miñik artu. Ama Birjiñak milagrua bertan egin zuan.

Ta gure aizpa Dolores ori Arantzazun gaizkitu ta an gelditu zan. Ta gure aitak, bakarrik etorri bear izan zuan, alaba an utzita.

Errira etorri, ta kanpoko jendea gaizki esaka asi zan. "Kuadrillan bazirala ill da erituak" da orrela. Ta etzan ixiltzen, da gure aitak bertsoak jarri zituan orduan.

Gure ama oraindik ere il berria zan; da, ni elizan nintzan batean, aita Arantzazuko kanta oyek kantari eliz-atarian sentitu nuan.

Etxera abiatzean, ala esan zidan lagun batek:

—Triste zoaz, Mikela.

—Bai; ama il berria ta aita Arantzazuko kanta kantatzen.

—Bai, bañan Ama Arantzazukoaren kanta ez tira beste batzuk bezela; kanta santuak dira oyek. Ez tristetu, ba, Mikela.



# I

(1886)

## BERTSO BERRIAK

- 1/ Erregu egin zazu,  
Ama, gugatikan,  
irten geran medioz  
bada Zugatikan,  
kuadrilla aundia gatoz  
Asteasutikan,  
Birjiña zuri agur bat  
egiteatikan.
  
- 2/ Aloña mendian daukagu  
Birjiña bat arantzan,  
zerbait esan nai nuke nik  
orren alabantzan,  
lagunduko didala  
nago esperantzan,  
beragatikan asi naiz  
orren konfiantzan.

3/ Lagunduko didala  
nik daukadan poza,  
artu dedan medioz  
orren esperantza,  
bestela ni ez naiz  
ezertako gauza,  
anparatu bada  
Santa milagrosa.

4/ Aloña mendian ori  
arantzan jarri zan,  
ezta presentatua  
utsaren peskisan,  
ark ondo bai zekian ba  
guk premiña izan,  
guri lagundutzeko  
zerutik jetxi zan.

5/ Koronazio bat degu  
Arantzazu mendian,  
ura ikustera gatoz  
txit gogo aundian,  
artzai on bat arturikan  
geren konpañian,  
Birjiña ori adoratzeko  
bear dan neurrian.

6/ Ejenplo on bat noa  
ni erakustera,  
zuek ere sayatu  
berriz ikastera,  
poz aundiarekin goazen  
Ama ori ikustera,  
ori lagun badegu  
galduko ez kera.

7/ Promesa kunplitzera  
gatoz borondatez,  
ondo deseatuta  
aspaldiko partez,  
akordatzen geralako  
geren ama batez,  
bete gaitzazula zere  
doai ta birtutez.

8/ Zure seme ta alabak  
gatoz gu Zuregana,  
zergatikan zeran Zu  
gure danon Ama,  
ezta misterio ere  
ama batengana,  
ezta gaizki izango  
ara joaten dana.

9/ Ama au ezpadet ikusi nik  
oraindik beñere,  
anparurik ez badet  
ezta orain ere,  
lagunduko didala  
pentsatzen det trebe,  
alimatu gaitezen  
da joango gerade.

10/ Norbaitek esan du benturaz:  
"Bidegi luze da", (12)  
Birjiñak errespuesta:  
"Ondo otza zera,  
ezpadezu nai etorri  
ni bisitatzera,  
zeñek lagunduko dizu  
beartzen bazera?"

11/ Agur egin daiogun bada  
guk ara joatean,  
burua makurtuta  
umil da pakean,  
etzaigu ba damutuko  
egunen batean,  
berak sartuko gaitu  
zeruko atean.

12/ Ara emen bertsoak  
oraingo berriak,  
Ama Birjiñarentzat  
konsolagarriak,  
bidian kantatuaz  
joateko jarriak,  
Asteasun bizi izan zan (13)  
Pello Errotariak.

---

(12) Bear bada, emen "*Bide luzegi da*" bear luke, bañan bertso-paperan dagoan bezela jarri degu.

(13) Paperan *Asteasun bizi izan zan*. Beraz, bertso-papera il da gero aterea izango da. *Asteasun bizi dan* jarriko zuan Pellok. Mikelari etzitzayon bertso au gogoratzen, da paperan dagoan bezela jarri degu.

Laugarren bertsoan ere garbiro asko ageri da beste eskuren bat ere ibilli dala emen: bertso ortan *premiña* esaten da. Pellok *premiya* jarriko zuan noski.

**IKUSI:** Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabe, Arantzazu-ko liburutegian.

## II

### BERTSO BERRIAK

- 1/ Bertsuak jarritzeko  
atera det plana,  
memoriya argitu  
egin bear lana,  
bitarteko jarriyaz  
Arantzako Ama,  
fabore baten esker  
banator Zugana,  
logratzen ote dedan  
desio dedana.
  
- 2/ Nerekiñ ez dadukat  
biar aña grazi,  
laguntza baten billa  
argatik naiz asi;  
ez dakit ematia  
deraden merezi,  
Ama, zuri eskatu-  
tzen dizut lenbizi,  
bitartekotza egiñ  
semetxo Jesusi.

- 3/ Astiasu ta Alkiza  
 juntatu bi erri,  
 klase guzitakuak:  
 kale ta basarri;  
 geren artian esan  
 giñukan elkarri:  
 "Agur bat egiyogun  
 danon Ama orri",  
 alkarrekiñ gerade  
 juan da etorri.
- 4/ Pelegrinaziyuan  
 Arantzazura jun,  
 Aguztubak zituban  
 amazazpi egun,  
 alkargana bilduta  
 orrenbeste lagun,  
 ai zer gusto ederra  
 guk an eman degun,  
 Ama Birjiñak berak  
 lagun egin zigun.
- 5/ Brinkola-n atera ta  
 ekiñ mendi (y) orri,  
 biriak galdu eta  
 danok giñan larri;  
 Don Bitoriano jauna  
 aurretik zan jarri,  
 danori esan zigun  
 segitzeko arri,  
 gero zuzen jun giñan  
 salto eta korri.

6/ Zuzen juañ giñaden  
andikan aurrera,  
Arantzazu deritzan  
komentu zarrera;  
an estimatu zuben  
gure etorrera,  
musika ta etxefuego  
ai ura sarrera!  
primera klasian gu  
allegatu gera.

7/ Segituban giñaden  
elizara junak,  
sermoya egin zigun  
Deogracias jaunak;  
guri eman zizkigun  
onrak eta famak,  
konsolatu ginduben  
ikustian Amak,  
pozaz zoraturikan  
arri beira danak.

8/ Egun ura ez daukagu  
oraindik aztuta,  
Ama orri begira  
an geunden poztuta,  
urrez da graziz an da-  
go aberastuta,  
Bera're apenas zegon  
kopeta beztuta,  
adoratu genduben  
danok auspeztuta.



- 9/ Andikan juan giñan  
danok afariá,  
an billatu genduban  
etxe dotoria,  
probintziyan bat ez da  
palaziyo obia,  
gañera an daguban  
kurioidadia,  
arritu liteke an  
ikusi gabia.
- 10/ An deskantsatu giñan  
primera klasian,  
danok konpesatzera  
juan giñan goizian,  
Jaun sakramentatuba  
artzeko pozian,  
bertan egon giñaden  
denbora luzian,  
gustora artu genduben  
geren biyotzian.
- 11/ Amarretan don Lorentzok  
meza nagusiya,  
Epistola don Ramonek,  
ai ura graziya!  
Sorondok ebanjeliyua,  
ark zeukan sasoya,  
iya aidotu zuban  
eleiza guziya,  
berok irurak dute  
onra mereziya.

12/ Meza erdiyan genduben  
predikadoria,  
ez dakit zein zan baño  
iztun dotoria:  
nai bagendu bein juan  
zeruko gloriá,  
bitarteko artzeko  
Birjiña Maria,  
arrek erakutsiko  
zigula biria.

13/ Obra on guziyakiñ  
artu gendun parte,  
bazkaltzera juanda  
jan da eran fuerte;  
ostatuba on dago,  
ona eta merke,  
guretzako izan da  
bastante suerte,  
guri etzaigu aztuko  
bizi geran arte.

14/ Fonda ortan ez giñan  
gelditu gosiak,  
ekarri zizkiguten  
nai giñun klasiak,  
lau neskatxa serbitzen,  
etziran luziak,  
ez gaur asko bezela-  
ko txoro aiziak,  
Ama Birjiña bera  
bezelakoxiak.

15/ Berdin estimatzen zuben  
zar da gazte dóna,  
txorakeri gutxi ta  
azkar egin lana;  
begiya bera beira,  
errespeto ona,  
zueri begira naiz  
gustora egona,  
Birjiñak deizuela  
nobiyo on hana.

16/ Bazkaldu eta gero  
etxe aldera asi,  
guri egin digue  
bastante noblezi,  
akonpañatu gaitue  
musika ta guzi,  
danon partetikan nik  
beroi milla grazi,  
Arantzazun ez dira  
oso triste bizi.

17/ Arantzazutik baguaz,  
agur, gure Ama,  
nere amoriyuak  
orrera narama,  
danontzat eskatze'izut  
osasuna ona,  
grazi (y) ori bialdu  
ezazu gugana,  
berriz ere etorri  
gaitezen Zugana.

18/ Etxe aldera asi  
genduben berrunda,  
tristura aundiya niyon  
jendiai barrunda,  
atzera begiraka  
mendiyan gora junda,  
alkarri galdetubaz:  
"Gure Ama nun da?",  
guk zenbat maite degun  
ortan ezagun da.

19/ Jendia garaiz giñan  
goitxuá iyua,  
Don Bitorianok an  
errosariyua,  
jende errespetokua  
eta seriyua,  
Birjiñari agertu-  
baz amoriyua,  
artuko degu oraindik  
arren baliyua.

20/ Birian erretratatu  
ditu fraile jaunak,  
ordurako batzubek  
aurrera juanak,  
probetxurik etzuben  
alde egin zubanak,  
obia zan an izan  
bagiñaden danak,  
naigoko zuban noski  
artara jun zanak.

21/ Bere lagunen billa  
aurrera're jun zan,  
amar minutu barru  
mendi puntan an zan,  
ikusit nai zuben  
jende dana nun zan,  
pañueluakiñ atzetik  
agurka jardun zan,  
zenbat maite ginduben  
obran ezagun zan.

22/ Alkar akonpañatu  
dute bi erriyak,  
milla esker sazerdote  
beneragarriyak,  
berdiñ berdiñ jo degu  
nagusi-morroyak,  
aurrian arturikan  
mendiko arriyak,  
alkarrekin gustora  
gera etorriyak.

23/ Despatxatzera nua  
oraiñ bertatikan,  
graziyak Zuri, Ama,  
danon partetikan,  
juan biarrak gera  
mundu ontatikan,  
garai batzuetan ez  
ustiagatikan,  
erregutu ezazu  
guztiyokgatikan.

24/ Ogei ta lau bertsokin  
ara errematia,  
agur aizken aizkeni-  
kan, Ama maitia,  
gure eriyotzian  
oroitu zaitia,  
iriki egiguzu  
zeruko atia,  
Eliceguik nai luke  
guztiyok juatia.

---

IKUSI: Bertso-papera: "Tip. Muguerza — Tolo-  
sa", (Arantzazu-n).

### III

(1897)

## BERTSO BERRIAK ARANTZAZUKO ALEGRANZAN JARRIYAK

1/ Gure Arantzazuko  
bidaje ederrari  
bertso berri batzuek  
nai nizkake jarri;  
graziya eskatubaz  
Ama Birjiñari,  
pasadizua zuzen  
esan al baledi.

2/ Ama Birjiña beti  
estadu gozuan,  
persona serbitzeko  
premiko kasuan;  
enteratuko zala  
nere abisuan,  
argatikan asi naiz  
konfiantza osuan.

3/ Mayatzian genduen  
peregrinaziyua,  
ogei ta amarrerako  
zan kondiziyua;  
Birjiñari egiteko  
adoraziyua,  
badegula uste det  
obligaziyua.

4/ Sei t'erdiyetan giñan  
goizian atera,  
Larraul da Asteasu  
guztiyak batera;  
Arantzazuko Amari  
gusto ematera,  
nola portatu zagun  
nua esatera.

5/ Birian asi zuen  
errosariyua,  
gauza baliyosua  
eta seriyua;  
argatikan Birjiñak  
zigun amoriyua,  
au zan gure okerren  
erremediyua.



6/ Zortziyetan trenien  
Billabonan sartu,  
Zumarraga ortara  
ondo allegatu;  
andi abiatu ta  
zan deskarrillatu,  
batek ere ez degu  
guk miñikan artu.

7/ Geren belarriyakin  
gaude aditubak,  
kuadrillan bagiñala  
ilda ta eritubak;  
ori esan-azi du  
ezin sufritubak,  
danok gera orduban  
sano gelditubak.

8/ Bere plantxatik trena  
orduan zan kendu,  
Ama Birjiñak bertan  
milagrúa egin du;  
ondo begiratuta  
klaro ezagun du,  
zein bizirik gelditu  
ez balu lagundu?

- 9/ Fogonerua trenatik  
egin zan erori,  
amalau oiñ aidian  
gutxienez ori;  
matxurarik etzayo  
azaldu berari,  
graziyak eman leizkake  
Ama Birjiñari.
- 10/ Trena okertu zanian  
ango karraxiya,  
saltoka bazijuan  
sasoiko guziya;  
estimatutzen zuen  
nork bere biziya,  
orduban azaldu zan  
Birjiñan graziya.
- 11/ Billabonan billetiak  
zeñek beretzako,  
guk artu giñituen  
Brinkola-ra arteko;  
kasua izandu zan  
len ateratzeko,  
berroi ta bosna zentimo  
badegu artzeko.

12/ Abiso bat bialdu  
guk konpañiyari.  
artzeko degun piska  
kobra al baledi;  
gauza aldrebesea danik  
ez deritzat ori,  
gero limosna egin  
Ama Birjiñari.

13/ Trena okertu eta  
izan ziran lanak,  
gero otsegin zuen  
Erretore jaunak:  
oñez juango giñala  
animoso danak,  
lagunduko zuela  
Arantzako Amak.

14/ Telleriarte-n artu  
degu giyariya,  
mendiz abiatu ta  
beriala ebiya;  
bustiagatik ere  
gure alegriya,  
ikusteko pozian  
Birjiña Mariya.

- 15/ Ayuntamentu jauna,  
alkate ta guzi,  
sekretariyua ere  
zan oyekin nasi;  
konpañiyan etzuen  
ematen itxusi,  
ejenplo egokiya  
dute erakutsi.
- 16/ Gogotsu asi gera  
gu mendi aldera,  
promesa kunplitudaz  
al zan aurrera;  
anparoa genduben  
Birjiña Ama bera,  
izugarri ederki  
allegatu gera.
- 17/ Don Tomas Eguibar da  
parroko guria,  
Arantzako Amari  
badiyo fedia;  
ark erakutsi digu  
Argana bidia,  
ondo gobernatu du  
bere artaldia.

18/ Don Mariano Miqueo  
beste parrokoa,  
arrekin etorri zan  
jende Larraul-kua;  
obra onetan entero  
aurrera dijua,  
ezagun du dala orrek  
fede onekua.

19/ Asteasu ta Larraul  
unitu alkarrena,  
beste lau erritatik  
bildu ziran gugana;  
Tolosa ta Alkiza,  
Zizurkil da Aduna,  
ez degu penarikan  
alkarrekin juna.

20/ Juanda zerbait artu,  
elizara korri,  
predikatutzen asi  
zan Aita Alberdi;  
laguntza eskatzen ziyon  
Ama Birjiñari,  
danori eman dizku  
graziyak ugari.

21/ Konpesiyuak egin  
txit modu onian,  
komuniyo jenerala  
biyaramonian;  
fedia indartu nai  
guk alegiñian,  
sobra gutxi daukagu  
gaurko egunian.

22/ Askok ukatzen degu  
Jesusen legia,  
serbitu nayago da  
etsai traidoria;  
ortatik ez da gero  
zerura bidia,  
pentsatu nola pasa  
eternidadia.

23/ San Franziskoren seme  
beneragarriyak,  
Ama ori adoratzen  
an daude jarriyak;  
lagundutzen diyela  
beraren argiyak,  
zeruban sar ditzala  
Birjina garbiyak.

24/ Zu zerade Ama bat  
biyotz onekua,  
doaya eman didazu  
eskatutakua;  
kontentuz arkitzen da  
Pello errotakua,  
biba Ama Birjiña  
Arantzazukua.

---

IKUSI: Bertso-papera: "TOLOSA: — Imp. de E. López." (Bodleian Library — Oxford).

# **GAÑERONTZEKO BERTSO-PAPERAK**



## I

### GERNIKAKO ARBOLARI

Gernikara eraman zuten, da an ere premiyoa atera zuan gure aitak. Euskerari ta ango arbolari bertsoak atera zizkien gero. Bañan apenas dakizkit'nik banaka batzuk baizik:

I/ Euskeraren gañian  
biar det itzegin,  
nere lagun guziak  
artzeko atsegin,  
iñozente dagona  
abertitu dedin,  
gurekin deskuidorik  
gertatu eztedin.

2/ Gure arbola dago  
indarrak aituta,  
lorerik eztuala  
nago arrituta,  
enteratu zaitezte  
itz au adituta,  
ia ostatutzen dan  
mentu berrituta.

3/ Mentu onak billatzen  
saya egiñala,  
gero ondo txertatu  
esan dan bezela,  
ta dagokion batek  
goberna dezala,  
uste det arbol ori  
ostatuko dala.

4/ Lenbizi ostua ta  
urrena loria,  
orain .....  
.....  
gero aterako da  
lotsikan gabia,  
sekula ezta aztuko  
orren onoria.

Eztakit nik beste bertso au oyetakoa za-  
nik:

.....

.....

.....

.....

zarra zutik dagola  
aldatu dute bestia,  
izugarrizko puriya dakar  
izanagatik gaztia.

## II

(1894)

### SENAR-EMAZTE BI

(*Gertaera*)

Gizon ura kanpora ezkondu omen zan; ogei ta bost ontza urretan zituala sartu zan baserri artan, da ustez ondo jarri zan.

Bañan gero, norbaitek salatu zion alako gizona, alarguna, andrearengana joaten zitzayola. Ta baita ala izan ere: etxean koñata neskazar bat omen zeukan, da aurrena arengana ta urrena emaztearengana joaten omen zitzayon.

Ori ikusi zuanean, andrearengandik partitu zan, etxean bi aur utzirik. Ni ezkondu nintzan sagar-urte aundi artan partitu zan. Bera atera, ta alarguna etxean sartu omen zan.

Pasadizua kontatu ondoren, gure aitari

eskatu zion bertsoan andreari esateko, aurak ondo azi bear zituala, gogoan zuala ayek nola zituan, berriz ere alkarrekin bizitzeko desioa zuala,...

Ala jarri zion, da bertsoen billa etorri zanean, berekin etorri zan laguna onela asi zitzayon:

—Zertako jarri dituk ba bertsoak? Berriz ere atso orrekin bizitzeko asmotan al ago? Jo ta iltzea merezi ukek...

Andreari ura esaten ziolako, laguna ito bearrean aritu zitzayon. Arek esan zizkanak! Nik gogoan dauzkat, bai.

Neronek eskiribituak dira bertso auek ere.

## BERTSO BERRIAK

### NERONEK NERE GERTAERARI JARRIAK

- 1/ Milla zortzireun larogei eta  
amalaugarren urtia,  
denbora onetan pensatu det nik  
bertso berriyak jartia;  
leku askotan zabaldu nai det  
izan dedan suertia,  
orretarako zure bear naiz,  
guztiyon Jabe maitia.
  
- 2/ Nayago nuke lan au baneuka  
biar bezela jarriya,  
ondo pentsatzen baldin badegu  
ain da lastimagarriya;  
mesede eske Zugana nator,  
Aita estimagarriya,  
komeni bazat eman bear dit  
espirituko argiya.

- 3/ Asunto dana biar bezela  
nai nuke nik erabaki,  
kulpa duenak zergatik nuan  
kantak jartzera badaki;  
beragatikan sayatu biat  
alegiñian egoki,  
aditzalliak ikasitzeko  
atentziyua iduki.
- 4/ Nik obe nuke kaso guztiya  
deklaratuba hanego,  
asunto asko gertatzen zaizkit  
esango banitu ondo;  
modubak ala agintzen du ta  
enaiz ixillik egongo,  
bañan ez due leku guztitan  
konsuelorik emango.
- 5/ Nerau Ayatik mutill libria  
kostara ezkondu nitzan,  
diruba ere ondo nuela  
etxe ortara jua nitzan;  
an izateko pensamentuban  
mundu ontako bizitzan,  
itxura txarrak azaldu zaizku,  
gustorik ez degu izan.

6/ Ezkondu nitzan etxe ori da  
.....-ko .....,  
bizimoduba moldatu nuben  
diru asko ekarrita;  
oi ta bost ontza urretan ziran,  
zer kantidade polita,  
oyek guztiyak izanagatik  
zenbaitekin alperrik da.

7/ ..... apeldua,  
A..... det graziya,  
Aya-n jayua izan biar det  
gañera bertan aziya;  
.....-ra ezkondu nitzan,  
orra itzezin guziya,  
esango'izuet nik emaztia  
zergatik dedan utziya.

8/ Matrimoniyo ondo artubak  
alkarri asko zor diyo,  
konfiantzarik ez baldin badu  
personak ez du baliyo;  
nik emaztia utziya daukat  
lan ori dala meriyo,  
B..... G.....-k zergatikan dan  
orri antzematzen diyo.



- 9/ Deklaratzia txit komeni zait  
nola dan kaso guria,  
besteren gauza beretutzeko  
badu abilidadia;  
B..... G..... egon biar du  
lan oriyetan trebia,  
orregatikan azaldu zaigu  
etxeko nobedadia.
- 10/ Akordatuta egun batzubek  
or ixilikan jun dia,  
iñorentzako ezta ederra  
etxeko pesalunbria;  
gauza oriyek entzundakuan  
arrituko da jendia,  
oso ederki konpontzen ziran  
B..... da nere andria.
- 11/ Adierazitzen ari naiz zerbait  
neri zer zaidan gertatu,  
au edozeñek esango due  
“G..... ez da portatu”;  
gauza aldrebesak egiña dago,  
gañera berak kontatu,  
oyek orrela entzundakuan  
zeñ egongo zan kontentu?

12/ G..... jaun au bi bider dago  
lenago ere ezkontuta,  
orain bakarrik gertatzen zana  
Jainkuak biyak kenduta;  
zenbait umildu izandu dira  
orrela alargunduta,  
azari gisa eizian dabill  
leyo-zulotik sartuta.

13/ Neska zar bat zan nere koñata,  
argana zitzaidan asi,  
arekin ere kontentu ez ta  
gero emazte ta guzi;  
ondorenian bera kontari,  
nik ere nunbait ikasi,  
lan orregatik familiya ta  
etxia nituben utzi.

14/ Eskandalua ezta izaten  
famiyaren protxuban,  
jakin gabian pasatzen dira  
gauza batzubek itxuban;  
ia eskuba jarri dezala  
bakoitzak bere petxuban,  
nobedaderik ezertan gabe  
zefiek sufritzen dituban?

15/ Zuzentasuna biar genduen,  
gertatu gera biyurri,  
lastima ez al da orla ibiltzia  
bada mundun parragarri?  
zer estadutan arkitzen nitzan  
orain jendiak igarri,  
ni atera ta an gelditu zan  
len esan dedan G.....

16/ Zuk badakizu uztarri batez  
nola giñaden lotubak,  
lenago gaizki izan bagera  
mudatu pentsamentubak;  
denbora jua da ez du baliyo,  
orain atera kontubak,  
despreziyu au ez du merezi  
matrimoniyo santubak.

17/ Ni atera ta errentaritan  
oriyek ezin pagatu,  
artuak eta sagarrak ziran  
guztiyak bertan geratu;  
nagusi jaunak oyek dianak  
gero dizte enbargatu,  
inuzentia gertatu balitz  
bazeukan zeñek pegatu.

18/ Gero neronek artu nituben  
oyeri enbargatuak,  
gurdi-sagarra lau pezetan da  
zortziyan berriz artuak;  
nagusiya ta biyok giñaden  
orretan arreglatuak,  
galerarikan ez dit eragin  
denbora artako tratuak.

19/ Arraskatu naiz tratuban eta  
lana ondo erori zat,  
laubian artutako sagarrak  
zortziyan salduba beintzat;  
andik partia biar duela  
emazte ori asi zat,  
neretzat etzan laguntzallerik  
palta atera balitzat.

20/ Endredo asko jarritzen ditu  
bada persona gaiztuak,  
lenago ere ikusi zaizka  
gauza aldrebes askuak;  
ustez ixillik zebillen baño  
utzi ditu arrastuak,  
G..... orrek eraman dizkit  
belarrak eta lastuak.

21/ Lastaira eder bat etxian neukan  
nagusiyak ekarriya,  
beteta neukan txurikiñakin  
berarentzako jarriya;  
ori're ostu belar da lasto  
pilla ikaragarriya,  
gañera berriz eraman dizkit  
bi barrika ta gurdiya.

22/ Besteren gauza beretutzeko  
beti dago korajian,  
guk eztakigu zenbat jenero  
joaten ziran birajian;  
gau illunian artu liteke  
gizon ori barajian,  
eskuba garbi erukiko du  
ezer ez dan parajian.

23/ Badakizue bi kriatura  
nola nituben nik utzi,  
akordatzian nere barrenak  
ez daduka pena gutxi;  
Jaungoikuaren lege santuba  
bear zaye erakutsi,  
enkargu ori ematen dizut,  
nere emazte .....

24/ Bire txarretik erori giñan  
paraje aldrebesera,  
egun batzubek zurekin pasa  
nai nituzke nik zartzera;  
zure aurrakin kuadrilla oitatik  
apartatutzen bazera,  
nai dezun erri señala zazu,  
nerekin galduko etzera.

25/ Deseo nuen bertso berriyak  
orra nik adierazi,  
kontuba pranko ipiñi degu  
nai ditubenak ikasi;  
itxu tristiak nolabait ere  
munduban biar du bizi,  
asko saltzia mesere du ta  
al dezubenak erosi.

- 
- 6/2: Erria ta etxea.  
7/1,2: Apellidua ta izena.  
7/5: Erria.  
8/7: Izena ta apellidua.  
9/5: Izena ta apellidua.  
10/8: Izena.  
11/4: Apellidua.  
12/1: Apellidua.  
15/8: Apellidua.  
20/7: Apellidua.  
23/8: Izena.

**IKUSI:** Bertso-papera: "Tolosa: — Imp. de E. López". (Azpeitiko Odria baserritik).

Mikelak 6, 13, 23 ta 24-garren bertsoak esan zituan buruz. Bañan aldaketa auek egin zituan puntuetan: 13/1: neskazar bat zun; 13/2: zitzayon; 13/5: gañera ber-bera kontatzen — nik ere berriz ikasi; 13/7: lan orregatik emaztia ta; 23/5: Jaungoikoaren lege santuban — oik biar dirade azi; 24/1: Toki txarretik erori ziñan; 24/7: zure diñako izango da ta.

### III

#### BI INDIANO (Gertaera)

Mutil bat, Astiasuko Goruagoineko semea, joan omen zan emendik Cuba-ra, Cárdenas esaten zayon erri batera, eta an morroi zegoan.

Gordetzen omen zituan milla duro nagusiaren etxean, ta beste milla beste toki batean.

Egun batean, nagusiak milla duro oyek eskatu zizkan. Esan zion, gero bueltako zizkala, "oso bereak bazituala berrogei ta amar injeniyo". Injeniyoak ango lurrak omen dira. Ala, eman zizkan.

Gero, beste milla duro ere auzoan nola zeuzkan jakin, ta urrena aiek eskatu omen zizkan, biak batera illabeterako bueltatuko zizkala. Baita eman ere.

Illabete pasa, ta ez omen zizkan buelta-



tzen. Esan omen zion, beste illabete bearko zuala "osoan jaso ezker", ta konforme gelditu zan beste illabeterako.

Papera ere firmatu omen zion. Bañan, zer egin zion gero? Firmatu bai, bañan dirua eman gabe onera alde egin.

Mutillak, zer egin zion orduan? Segitu atzetik onera.

Onera allegatu, nagusiarengana joan, ta eskatu omen zizkan diruak. Ukatzen asi omen zitzayon, bañan mutillak an eduki firma berea, ta ukatzerik ez.

Gero, gizon bat bialdu omen zion konpontziyora.

Ta ara zer aziyo egin zion urrena. Nagusi orrek berea omen zuan jayotako baserria, ta orduan arrebaren izenean hipotekan pasa zuan.

Besterik etziola emango ta, sei milla errial bakar bakarrak eman zizkan mutil orri. Gero alde egin zuan.

Orduan, mutilla gure aitarengana etorri zan kantik jartzeko.

Bañan nagusiak jakin zuan mutillak kantak publikatzera zijoala, ta kanta-paper oyek saltzea galerazi egin zuten. Nolabait ere iritxi zuan ori ere nagusiak.

Nere denbora guzian, gure aitak jarritako bertsoetatik, auek bakarrik saltzen ibiltzea galerazi zuten.

Gure aitak, ordea, onela esan zion mutillari:

—Motel, ez daukak batere saltzen ibilli bearrik: bota izkik gauez alako ta alako tokitan, ta jakingo dik jendeak orren aziyoa.

Ala egin zuten. Gauez feria, merkatu edo alako zearen bat zan tokietan uzten zituen, eta jende guziak irakurri ta ikasi zituan.

“Kaballeru” orrek ba omen zeukan Berastegi-n andregaya, berrogei milla duroko “señora”.

Ba, bere andregai orri, gauez joan ta kanta-papera atean josi zioten. “Orra: jakin zan orain zeñekin abillen”.

Ta andregayak papera irakurrita despeira eman zion.

Ontaz gañera, hipotekan baserria jasotako arrebak beste ainbeste egin zion, ta “aunerea dek” esanaz, bate gabe utzi zuan.

Orra nola gertatu zan, hidezkoa ez eman eta etxea galtzea.

Biak ere il ziran. Mutilla il zan aurrena.

1/ Asteasu-ko semia naiz ni,  
Jose Antonio Otegi,  
nere nekiaz egiña nintzan  
ustez biar ain loteri,  
premi batian bi milla duro  
prestatu nizkan besteri,  
artzalle orri agertu zayo  
gauza aña enbusteri.

2/ Emen gustora ez negoen ta  
juan nintzaden Cuba-ra,  
Cárdenas deitzan erri eder bat  
paraje ayetan bada,  
amabost urte kunplitu ziran  
ni juan nintzalarik ara,  
esango'izuet ango diruak  
egin zidaten jornara.

3/ Anoeta-ko semia da ori,  
B..... dauka izena,  
I..... du apellidua  
orrek pontian emana,  
Cardenas-etan almazengan  
komerziante egona,  
andik igesi etorri eta  
Berastegi-n bizi dana.

4/ Milla duro nik gordeta neuzkan  
B..... orren etxian,  
estuason bat zuela eta  
ayek eskatu zizkian,  
bayetz agindu niyon orduan,  
serbitu nuen trantzian,  
artzeko pronto izan zan baño  
buelta daduka atzian.

5/ Beste milla're nik baneduzkan  
urruti gabe gordiak,  
nere nekiaz irabaziyak  
iñori're zor gabiak,  
B..... orrek aitara ere  
ebaki ditu bidiak,  
modu orretan eamanak ditu  
bi milla duro neriak.

6/ Oso beriak bazituela  
berroi t'amar "injeniyo",  
komerzianta bera azkarrena,  
bestek etzuen baliyo,  
gezurra eta enbusteriyan  
bere burua gora iyo,  
nere diruak eraman ditu  
lan ori dala meriyo.

- 7/ "Injenio" ori batere etzala  
nintzayon ni akordatu,  
nere dirurik agiri ez ta  
ni ez negoen kontentu,  
nere diruen garbitasuna  
paperaz niyon eskatu,  
mutil panparroi lujoso orrek  
etzuen atsegiñ artu.
- 8/ Esan bezela eskatu niyon  
nere diruen papera,  
leku txarrian neduzkan eta  
nai nituzkian atera,  
kantidadia presta zezala  
andikan illabetera,  
paperaz bayetz erantzun zidan  
konforme zegola bera.
- 9/ Beste illabete pasata ere  
utsegin zuan plazuan,  
ifundik ezer agiri ez ta  
ez negoen deskantsuan,  
beste illabete biarko zala  
jaso ezkerro osuan,  
papera egin, firmatuta utzi,  
onera aldegin zuan.

10/ Ark aldegin da ondorenian  
ni ere etorri nitzan,  
arrazoya're banedukan ta  
berarengana juan nitzan,  
nere diruen aitamen eman,  
ukatzen azkar asi zan,  
leku onian izango nitzan  
firmarik ez banu izan.

11/ Bi milla duro nik eman arren  
arrek ukatu zituan,  
beraren firma nerekin neukan,  
asi nitzayon pleituan,  
.....  
.....  
ortik pentsatu kristau gaiztoak  
zer maleziyak dituan.

12/ Bi milla duro nik eman arren  
ukatu zituan aurki,  
beraren firma nerekin neukan,  
arrapatu det egoki,  
konpontziyora beste gizon bat  
bialdu ziraden aurki,  
alako lanik ark etzedukan  
zorrik ez balu eduki.

- 13/ Beste aziyo bat egin dirate  
andikan ondorenian,  
Anoeta-ko Agerre hipotekatu  
arrebaren izenian,  
saldu-paperan entendituta  
ez da bide zuzenian,  
traiziyo au egin dirate  
eske asi naizenian.
- 14/ Bi milla duro zuri emanak,  
Jose Antonio Otegi,  
sei milla errial bakar bakarrak  
alkanzatu zaizkit neri,  
kontzientzia libratutzeko  
arreglatu al baledi,  
neretzat gorde biar zenduke  
arriba aberats ori.
- 15/ Bere etxian mutil negoen  
soldatan ajustatuta,  
zaldiya ere ipintzen niyon  
apaña preparatuta,  
silla ta guzi traste denakin  
ederki antolatuta,  
aberats gisan an juaten zan  
zaldiyari montatuta.

16/ Injeniyora zijoala esanda  
etxetik egin atera,  
aberats gisan apaindu eta  
eunero pasiatzera,  
gastua aurrera zijoan eta  
komertziyua atzera,  
aberasteko señaile ona:  
gaiztuak bisitatzera.

17/ Ogei t'amasei milla errial  
neriak zure tartian,  
berrogei ziran entregatuak  
an Cardenas-ko partian,  
sei milla oyek eman dituzu  
ez oso borondatian,  
nik ez dizkizut zuri barkatzen  
danak pagatu artian.

---

3/12: Izena ta apellidua.

4/2: Izena.

5/5: Diru artzallearen izena.

6/2: Injeniyoko = Cuba-ko baserria, nekazari-  
-etxea.

11/5,6: Ezin puntu au gogoratu.



## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUN DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI.
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.

16. *Alfonso M.<sup>o</sup> Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
17. *Antonio M.<sup>o</sup> Labayen*: MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (Bizitza ta ta bat bateko bertsoak).
20. *Franzisko Goñi, S.I.*: LURDESKO GERTAE-RAK.
21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.
24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *Alfonso M.<sup>o</sup> Zabala, A. Larraitz, Juan Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi senarrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearko! —Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA, bere alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.

